

«Diskoan lekuz kanpo sentitzeaz ari naiz,
neure deserri partikularra pasa dudana seinale»

Eñaut Elorrieta



- **Itoitzen herentzia** Zorra, porlana eta beldurra Agoitzen
- **Inasa**, Iruntzun Langileek eutsi nahi diote jabeak hautsi nahi duenari
- **Mari Karmen Menika**, UEU «Etengabeko prestakuntzan funtzio bat betetzen dugu»
- **Liburutegiak** Umeak euskaraz, helduak best-sellerraren atzetik
- **Net Hurbil** Izugarrikeria gehiago gertatuko da Bangladesheko jantzigintza fabriketan



berriak 10 urte

Ekainak 22

Martin Ugalde Kultur Parkea

Andoain

**11:00etan,
Irrien Lagunak- Kanta eta dantza**

**11:00etatik 12:30era,
BERRIA ezagutzeko aukera**

**12:00etatik 13:00era,
Sagardo dastaketa**

**13:30ean,
ekitaldi
nagusia**

**12:00etatik 12:30era, bertsolariak:
Arrate Illaro, Odei Barroso
eta Beñat Gaztelumendi**

**14:00etan,
bazkaria**

**16:00etan, kontzertua:
Napoka Iria, Petti eta Morau
18:00etan, kontzertua: Gose**

**Txosna, ogitartekoak, pintxoak... Bazkarirako txartelak, 10 euro. Erreserbatu 943-30 43 45 telefonoan.
Txartelak egunean bertan banatuko dira BERRIAko harreran. Gainerako ekitaldiak, DOAN!**

Antolatzailea: **berria**

Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia

LABORAL
KUTXA

Irizar

Laguntzailea:

Kaiku



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egilek aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknika: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko parteidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko ekainaren 16a, 2.373. zenbakia

ASTEKO GAIA

AGOITZ Urtegia lehertu gabe, baina itolarrian.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 4

PERTSONAIA

MARI KARMEN MENIKA: «Euskararen eta unibertsitatearen arteko zubia eraikitzen UEUK badu zer egin».

MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

EMAKUMEAK KAZETARITZAN Erredaktore bai, zuzendari ez.

MARIJO DEOGRACIAS / 15

IRITZIAREN LEIHOA

FEMINISMOAZ HAUSNARTZEN AMAIA LASA ALEGRIA / 18

GEZURREZKO ETA EGIAZKO IZENAK JON ALONSO / 20

IPARRALDEKO POLITIKAREN MIRAIL ZARTATUA

MIKEL ASURMEN DI / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Kuttun-gai. EDU ZELAIETA / 20

BERTSO BERRIAK Garoña. RUBEN SANCHEZ / 21

ERDIKO KAIERA

EÑAUT ELORRIETA: «Ez da gauza bera hitz bat paperean, hizketan edo kantuan». SUSTRAI COLINA / 22

STOCK UMOREA Barrearen gaineko heziketa eta turismo aktiboa helburu. MYRIAM GARZIA / 26

LITERATURA IGOR ESTANKONA, G. UBEDA GOIKOETXEA / 30

MUSIKA OLATZ KORTA / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ALEA Identitatea eta besta. MYRIAM GARZIA / 33

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

INASA Multinazionalen joko zikina. URKO APAOLAZA AVILA / 37

ENBATAREN ZIRIMOLAN Enbata, barne-barnetik.

MIEL A. ELUSTONDO / 40

LIBURUTEGIAK Best-sellerrak mailegatzan ditugu, gaztelaniaz.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 43

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA Bilbon eraildako emakumea prostituta eta afrikarra zela esan behar al da?

ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Bangladesheko arropa merkeak sarraskiz sarraski.

PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Urtegia lehertu gabe, baina itolarrian

2.600 biztanleko herria izateko arazo finantzario larrietan dago Agoizko Udala aurreko agintariek utzitako herentziarengatik. Krisiak Euskal Herrian gehien zigortu dituen eskualdeen artean laugarrena, Itoizko urtegiko trago txar guztiak irentsi ezinda dabil.

Testua eta argazkiak:

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |



Agoizko kultur etxea Itoizko urtegiaren konpentsazio modura eraiki zuen Ebroko Konfederazio Hidrografikoak. Mekanismo berdinen bidez egindako beste hainbat azpiegitura bezala, handiegia da eta zama bihurtu da udalarentzat.

“AI AMA, non sartu gara?” pentsatu zuen Unai Lako Agoizko alkateak 2011n kargua hartu, aurreko Udal Gobernuak utzitako diru-kontuak errepasatzen hasi, eta zuloa ikusi zuenean.

Azken bi hamarkadetako joerari buelta eman eta UPNk babestutako Agrupación Independiente de Aoiz (AIA) boteretik kendu zuen Bilduk 2011ko udal hauteskundeetan.

Kontzejura heldu berriek susmatzen zuten 1991tik herriko jaun eta jabe izan zen plataformak ez zuela zorro publikoa modu ardurasuan erabili, baina kalkulu pesimistenak motz geratu ziren. “Orduan ikusi genuen zer nola-ko desastrea zegoen hemen. Ez bakarrik zuloa handia zelako, funtzionatzeko moduarengatik baizik. Erabat utzita zegoen dena”.

Herentzian jasotako zero sorta errexitatu du: 65.000 euro baino gehiago euskararen partidetan ordaindu gabe; 315.000 eurotik gorako zorra Arian eraikuntza enpresarekin ur-hornikuntzan egindako zenbait lanengatik; 8.000 euro ordaindu gabe Focsa enpresari 2010eko festetan egindako garbiketarik... Utzikeria zenbaki txikietara ere iristen da: “Batzuk txorakeriak dira, baina garrantzi handikoak: duela lau urte txatartegira eramandako bi autoreen aseguruak ordaintzen genituen urtero-urtero; zazpi edo zortzi urte eraitsita zeramatzen eraikin bateko bi kontratu genituen Iberdrolarekin; eta ortu komunitario batzuk ere baditugu eta lau urtean kuotak pasa gabe zeuden”.

Ados, ipurdiz gora gobernatu dute herria azken urteetan eta emaitza ia 400.000 euroko zorra da 2.600 biztanleko herri batean. Kudeaketa txar arruntaren aurrean bageunde, zenbaki horrek titularren bat beteko zuen eta ez zen kontatzeko askoz gehiago geratuko. Baina hemen zenbaki asko daude oraindik.

Etxebizitzak, spa zentroa eta mailegu bat

Agoizko eltzetxea hautsik gabe uzteaz gain, aurreko agintariek burdinazko bola batekin kateatu zuten Udalaren zenbait urterako, 726.000 euroko mailegu bat eskatuz. Urbanizazio berri bat finantzatzeko eskatu zen diru hori, eraikuntza enpresak aurreikusi zuelako 800.000 euro inguruko diru-sarrerak izango zituela operazioa amaitzean. Mailegua eskatu, gabealdian zeuden bitartean etxeak egin, dirua jaso eta kreditua martxan jarri baino lehen gainetik kendu nahi zuten. 2009. urteko kontuak direla aintzat hartuz, ameskeria hutsa.

“Zer gertatu zen? Etxebizitzak ez zirela egin, 2010ean gabealdia pasa zela eta gu Udalera heldu eta sei hilabetera hasi behar izan garela kreditua pagatzen” azaldu du Lakok. Etxeak eraikitzeke erabili ez zen dirua herriko beste proiektu handi-mandian gastatu zen, ur termaletako spa zentroan.

Jarraitu aurretik, Agoizko alkateak gauza bat zehaztu du: mailegua Santander bankuarekin lotu zuela AIA alderdiak eta orduko alkatea, Francisco Jose Enguita, banketxe horretako langilea dela. Beste ohar bat ere bai, spa zentroaren eraikuntzaz: “Berez hori doan eraiki behar zuten, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ordaindu behar zuen Itoizko urtegia eraiki izanaren konpentsazio modura. Baina 2009an, krisiarekin, esan zuten ez zutela dena ordainduko”.

Bainu lasaiak hartzeko lekua edukitzea ez da garestia maileguarengatik bakarrik, mantenuak ere patrika gizona eskatzen du. Bankua diru eske hasi gabe ere, 213.000 euroko defi-



Spa zentro hidrotermalak ematen du Agoizko aurreko Udalaren zarrastelkeriaren neurria: 2010ean agoiztarren zergen %69 behar izan zuen martxan jarraitzeko.

zita sortu zuen; bestela esateko, 2010ean agoiztarrek Udalari ordaindutako zergen %69 igerileku beroetako lurrin bihurtu zen.

Nafarroako Gobernuak dirua zor du

Zorra eta mailegua beraz. Beste ezer? Ba bai, hara, tiradera bat geratzen da zabaltzeko, kobratu gabeko diruz betea. Martxoaren 21ean Agoizko Udalak prentsaren aurrean salatu zuen Nafarroako Gobernuak 700.000 euro baino gehiago zor dizkiola. Hori da herri honek bizi duen ekaitz finantzario perfektuaren hirugarren osagaia.

Apirilean, Nafarroako Legebiltzarrerara eramane zuten gaia. Gobernu Foralak udalei eman behar zizkien partida askoren berririk ez dute 2013. urteko erdira iritsita. 0-3 urte



Ezkerretik eskuinera: David Ardanaz, Babespean hipotekak kaltetutako agoiztarren batzordeko kidea, Pello Lussarreta Agoitzaldea Bizirik!-eko kidea eta Unai Lako, herriko alkatea.

bitarteko haur eskolak martxan edukitzeko euro bakar bat ez dute jaso aurren eta ez dute espero kurtso berria hasi arte jasotzerik. Ordurako Agoizko Udalak 220.000 euro aurreratuak izango ditu zerbitzu hori eten ez dadin. Gizarte zerbitzuekin beste hainbeste: Agoitzez gain beste hainbat udal biltzen dituen Izaga zerbitzu sozialen mankomunitateak ia 100.000 euro aurreratu ditu eta finantzazio konbeniorik ez dago oraindik.

Gehiago: gastua egin ondoren Barcinaren exekutiboak diruztatu gabe utzi ditu hainbat obra. Itoizko urak Agoitz, Longida, Irunberri eta Urraulbeitira eramateko oinarritzik hornikuntzako lanengatik 154.000 euro zor dizkie udalei Nafarroako Gobernuak; Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin bazkideztan duen Itoiz-Nafarroako Ubidea Fundazioak 2011ko aurrekontuetan 130.000 euro aurreikusi zituen Agoitzentzat, Alde Zaharreko bi kale eta bide bat berritzeko. Berritu dituzte kale-bideak eta sartu ditu artaziak Gobernuak, agindutako sosak ez dira inondik ageri. Zorra zorraren gainean: 2012ko BEZaren itzulketarengatik Gobernuak 60.000 euro eman beharko lizkioke Agoitzi; 2008 eta 2009koengatik, beste 240.000 –urte horietan eraiki zen spa zen troa–.

Udalak dira “banku ustela”

Diru-laguntza txiki batzuk jaso ondoren, maiatzaren amaieran exekutibo foralaren zorra 650.000 eurotan dagoela azaldu du Lakok. “Imaginatuz guretzat zer den hori, diru horrekin urte oso bateko soldatak, gizarte asegurantza eta denak ordainduko genituzke”. Problema konpondu dezakeen pertsona-

ren izena ere azpimarratu du: José Javier Esparza, Agoizko alkatea 1999tik 2007ra eta orain Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilaria. “Aukera polita du berak sortutako arazoa, berak konpontzeko”.

Aferaren adarrak Iruñeraino iristen dira, zorraren kontuak bai baitu beste irakurketa bat ere: Nafarroako Gobernuak dio betetzen duela Espainiako Gobernuak autonomia erkidegoei exijitzen dien defizit helburua, %1,47koa dela datu hori Foru Erkidegoan. Baina Agoitzekin daukan zorra beste hainbat udalekin ere badaukala kontuan hartuz, galdetu liteke defizitaren kalkulu hori zenbateraino ez ote dagoen faltsutua.

“Seguru bikoitza dela”, dio Agoizko alkateak. Hori ere salatu zuen Legebiltzarreko saioan eta orduan egindako konparazioa errepikatu du: “Gu bankua gara Nafarroako Gobernuarentzat. ‘Banku ustel’ famatua. Nafarroako Gobernuak dio: ‘Zuk aurreratu diru guztia, ordaindu momentu honetan nik ordaindu ezin dudana, gehi zure parte; dena justifikatuta bidali nik diru-laguntza emateko, noski; eta nik, posible dudanean, ordainduko dizut’”.

Itoizko urtegiak du errua

Kalera jaitsi eta argazkia ez da hobe. Gaindegiaren datuen arabera krisiak gogorren jo dituen Euskal Herriko eskualdeen artean Agoitzaldea laugarrena da. Maiatzean 303 pertsona zeuden lanik gabe, %17ko tasa. Sei urtean beste hainbeste fabrika itxi dira eta martxan daudenetako hainbat Enplegu Erregulazio Txostenarekin ari dira.

“Udalak bankua gara Nafarroako Gobernuarentzat. Banku ustel famatua: ‘Zuk ordaindu nik ezin dudana eta posible dugunean bueltatuko dizugu’

Unai Lako, Agoizko alkatea

Horri aurre egin nahian sortu zen Agoitzalde Bizirik! herri mugimendua. Talde horretako kide da Pello Lusarreta; David Ardanaz berriz, Babespean hipotekak kalte-tutako agoiztarren batzordean ari da. Agoitzen egoera esplikatzeko krisi ekonomikoaz eta eskuinaren kudeaketa txarraz gain, Itoizko urtegirantz seinalatu dute, hura eraikitze-ko asmoa publiko egin zenetik ia dena baldintzatu baitu.

Nafarroako agintarientzat ezinbestekoa zen proiektu erraldoi horren aldeko indarrek gobernatzea Agoizko Udala, Lusarretak azaldu duenez. Horretarako sortu zuen José Manuel Gárrizek AIA plataforma 1991n. Iritzi publikoaren bataila irabazteko berriz, urtegia eraikitzeagatik herriak jasoko zituen konpentsazioak kantatu zituzten lau haizetara: spa zentroa, igerilekuak, kultur etxea, kirol instalazioak...

“Ematen zuen azpiegiturak sakratuak zirela. Konplexuz beteta geunden. Kultur etxe bat egiten badizute, nola esan ezetz?”, dio Ardanazek. Epe luzera baino ez da lortu, Lusarretaren ustez, azpiegiturak eta ongizatea automatikoki lotzen dituen ikuskera desarmatzea, konpentsazioak orain zama gehigarri bihurtu baitira: “Ezin dira mantendu”.

Lanpostuak, milioiak eta beste zenbait engainu

Ez dute asko lagundu eskualdean enpresak ezartzeko egindako inbertsio publikoek. Gamesak 5,6 milioi euro jaso zituen eta 170 langiletik 35 baino ez dira Agoizkoak. Beste 20 milioiko inbertsioa egin zen bioerregaien alorra ikertzen duen Cener Agoitzera eramateko. “Herriaren irudi oso okerra ematen du” dio Lusarretak. “Irakurtzen duzu ‘Agoitzen ez-dakit-zenbat milioi inbertitu dira Cenerren’ eta ematen du garapenerako positiboa izaten ahal dela, baina herriko pertsona bakarrak egiten du lan bertan”.

Eta aurrerakuntza, non dago? Aspaldikoak diruditen titular, promesa eta adierazpenez beteta daude herenegungo egunkariak. “Gamesak 440 lanpostu sortuko ditu Agoizko haize-errota plantan” (*Diario de Noticias*, 2008-V-14); “Kanpoko langileak etorri beharko dira eta errepidea hobetu beharko da” (Francisco José Enguita alkate ohiak esana, *Diario de Navarra*, 2008-V-14); “Agoitzerraino bi errepide egin behar badira, egingo dira. Eta hiru behar badira ere bai” (Miguel Sanz Nafarroako presidente ohiak esana, *Diario de Noticias*, 2008-V-14); “Itoizko hidroelektrikoak 33.000 tona petroliok adinako energia sortuko du urtero” (*Diario de Noticias*,

Kalean da ekaineko



aizu!

- Ahotsak, ahozko ondarearen gordailu
- Txokolatea eta bizkotxoak kultura dira
- Barnetegien egunerokoa
- Kalakan, iruditik musikaltasunera
- Mireia Epelde arin-arin

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**
aizunet.org



Eskualdeko egoera sozial larriari erantzuteko antolatzen hasiak dira Agoitz.

2009-III-03); “Itoizko presaren azpiko zentral berriak urtero 7 milioi euro sor ditzake” (*Diario de Navarra*, 2009-III-3).

Hizki txikiagotan argitaratu zen *Diario de Noticias*en José Manuel Gárriz eskuineko alkate ohiak iaz idatzitako gutuna. “Agoitz-Itoiz, engainua” titular argigarriaren azpian salatu zuen, herriari agindu zitzaizkion hainbat kontu –argindarra doan izatea, adibidez–, agendatik desagertu direla urtegia martxan jarri ondoren. “Egunero ari gara 100 metroko altuera duen hormatzarraren azpian bizitzen presiopean. Noizbait katastroferik balego, nor akabatuko du? Politikari jaunak, epaile jaunak, lagun nafarrak, uste al duzue hau bidezkoa dela? Beti pobrea eta txikia zapaltzen, aski da. Azkenean, hainbeste urtez sufritu ondoren, Itoiz engainua zela esan zutenei arrazoia eman beharrak izorratzen dit’”.

Baina arrazoi zuten. Itoiz ez da bideragarria. Charo Brinquis fisikariak Zaragozako Unibertsitatean egindako ikerketa batek agerian utzi du urtegia egiteko inbertitutako diruen berreskurapena %27koa izango dela 30 urteko epean. Bitartean, presaren azpiko zentral hidroelektrikoak hiru urtean 13 milioi euroko irabaziak eman ditu, zentimo bakar bat ere ez inguruko herrientzat. Herritarrek Itoiztik jaso duten ongizate nagusia urtegia eraiki bitartean herrian sortutako jarduera ekonomikoa da. Eta behin urtegia bukatuta, txorrotak horretako tantarik ez du inork edan.

Agoitz lan eta bizi

“Eta historia errepikatu liteke Abiadura Handiko Trena egiten dutenean, geldiarazten ez badugu. Eraikuntza enpresak eta politikari

ustelak aberasten, obra publikoen aitzakian. Ez dugu beste irtenbiderik. Horrexegatik, Agoitzaldetik antolatzeko deia luzatu nahi dugu”. Nobela honen epilogoak diruditen hitz horiek komunikatu batekoak dira, Agoitzalde Bizirik!-ek aurtengo martxoan Iruñera oinez egindako martxa bukatzean irakurritakoak.

Herria eta eskualdea putzura bota duten politikak baztertu eta bestelako irtenbideak bilatzen dituzte orain. Energia burujabetzari buruzko hitzaldia antolatu dute erreportaje honetarako material bila hurbildu garen egunean; Udaleko diru-kontuak nola dauden

ikusita, herritar batzuk hasi dira herriko txokoak txukuntzen eta konpontzen –2012rako egina zuten lehenbiziko auzolana–; autoenpleguaz hitz egiten da, dauden lanpostuak ahalik eta jende gehienaren artean banatzeaz, ez baita aspaldian entzuten enpresa berriren batek herrian plantaren bat irekiko duenik.

Larrialdi sozialaren aurrean

Herri Sarean ere sortu da,

agoiztarren elkargune izateko bokazioarekin. Elikagaien bankua, arropa-elkartrukea, bilera lekua, denetik egiten ari dira udaletxean martxan jarri duten lokalean. Premiak agintzen du. Itolarrian dago Agoitz, burbui-laren eztandak bete-bete harrapatutako beste hainbat herri, eskualde eta estatu bezala. Baina norabidez aldatu du, deriban jarraitu beharrean. Nafarroako herri txiki honetan gertatu denak zer ikasia emango al die porlanaren dependentzia zainetatik kendu ezinda dabiltzan Euskal Herriko beste agintariei. ■

**Larrialdi sozialaren aurrean
Herri Sarean sortu da
agoiztarren elkargune izateko:
elkagaien bankua, arropa-
elkartrukea, bilera-lekua,
denetik egiten ari dira
udaletxean daukaten lokalean**





"Euskarari kolorea
emanez"

EUSKARA

kolore bizia!

euskaraba.com
arabako euskararen ataria



► Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
►

www.alava.net

MARI KARMEN MENIKA

«Euskararen eta unibertsitatearen arteko zubia eraikitzen UEUK badu zer egin»

“Arnasa hartu beharra dago, eta ireki ateak, arrainak urak eta euskarak bere unibertsitatea”.

Xabier Amurizaren hitzak kantatu zituen Oskorrik 1979an. Handik hona, bidean da euskarazko unibertsitatea. Egin dituen urratsetan, hortxe Udako Euskal Unibertsitatea UEU, eta hortxe Mari Karmen Menika.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco

Zer dugu, gaur egun, Udako Euskal Unibertsitatea?

Juridikoki, irabazi asmorik gabeko kultur elkarte, onura publikoko aitormena duena. Halaxe esleitu zion Eusko Jaurlaritzak aitormen hori. Horrez gain, UEU erreferentziazko erakundea da euskara eta unibertsitate arloan. 1973an eratu zen, Euskal Unibertsitatea sortzea zuen helburu, unibertsitate esparruan eragiteko, eta horretan ari gara lanean. UEU sortu zen sasoian Euskal Herriak ez zuen unibertsitate barrutirik, Zaragozaren menpe ziren orduko unibertsitateak, eta UEUK zera aldarrikatu zuen, euskal gizarteak euskarazko unibertsitatea behar zuela. Gero-ora etorri ziren Mondragon Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa, baina inork ez du euskara lehentasunezko hartu, eta UEUrentzat hori oinarritzeko gauza da.

Euskara ez zuten lehentasunezko. Orain bai?

Aurrerapauso handiak eman dira, unibertsitate batzuetan besteetan baino handiagoak. Egun, posible da gradu batzuk bere osotasunean euskaraz egitea baina osotasunarekin alderatuz gero, oraindik oso urria da euskarazko eskaintza eta zer esanik ez graduonokoetan. UEUK, berriz, horixe izan du oinarri-oinarrian: euskara, eta bide horretan egin du lan joan den berrogei urtean. Eta gaur egun ere horretan ari da lanean, lau ildo nagusitan. Batetik, euskal unibertsitatea lortze bidean ari da lanean, Euskal Unibertsitatea fundazioa-

ren bidez. Bestetik, jarduera akademikoaren esparruan adituak euskaraz prestatzen, irakasleen prestakuntzan, dibulgaziozko hitzal-diak eginez, jardunaldi, graduondoko eta mintegiak... Bestetik, argitalpengintza dugu, liburu zein aldizkariak, unibertsitateak ezin bestekoa du-eta material idatzia. Azkenik, informazio eta komunikazio teknologiak gure jardueran txertatzen ari gara, gizarteari internet bidezko hainbat zerbitzu eskaintzeko. Horra inguma datu-basea, euskal komunitate zientifikoaren bilgunea, unibertsitatea.net (komunitate unibertsitario euskaldunaren ataria), buruxkak (UEUren liburu digitala), e-irakaskuntza gunea eta beste.

NORTASUN AGIRIA

Mari Karmen Menika (Arraño, Lemoa, 1961), zazpi senideko familiako alaba. Administrazio ikasketak egin zituen, Alfabetatze, EGA eta Sakontze mailako ikastaroak. 25 urtetik gora zenean egin zuen sarrera unibertsitatean, ordurako lana, familia eta ikasketak uztartu nahirik. Euskal Filologia ikasketak hasi, eta lehen zikloa amaitu zuen. Sasoi hartan jabetu zen hizkuntzalaritza ez baina kudeaketa zuela lan-arlo. Enpresaren kudeaketa landu du harrezkero, eta UEU bera izan du prestakuntza leku, dela komunikazioan, dela teknologia berrietan. UEUren Eibarko Markeskua jauregian ari da lanean 2001. urtetik, Ikastetxe Nagusiko arduradun.





Zer ikustekorik du UEUk Euskal Herriko Unibertsitateak garatu duen euskarazko lerroan?

UEUren ikastaroak prestakuntza toki ezin hobeak izan dira EHUKo zein beste unibertsitateetako irakasle askorentzat. Jende askok UEUn eman ditu bere lehen eskolak euskaraz. Bide horretan UEU ez da bakarrik aritu, Elhuyar, Uzei eta Leioa zein Donostiako unibertsitateko irakasle-taldeek zeresan handia izan dute. Elkar eragin zuten, dudarik gabe. Ahalegin handia egin zuten, beren lana euskaraz prestatzeko, materiala sortzeko eta apurka-apurka euskarazko prestakuntza unibertsitatean txertatzeko. Hori egin zuten pertsonak UEUKideak izan ziren, baina EHUKo irakasleak ere baziren.

Zer antzekotasun dituzte gaur egungo UEUK eta 1973an ibilian hasi zuen hark?

Euskal unibertsitatearen aldeko hazia ordukoa da. Gu haren oinardeko gara. Ordukoa bilgune txiki bat zen, Iparraldean eginiko kultur aste batzuetatik zetorren. Euskaldunak bildu ziren, euskal kultura eta gizartea eta erlijio gaiak lantzeko. Kontuan hartu behar da orduko egoera politikoa ere. Euskaraz ikastea debekatua zegoen! 1975ean, Franco hil ondoren, Hegoaldean ere zenbait aukera zabaldu ziren, euskaraz aritzeko, bai unibertsitatean, bai gizarteko maila askotan ere. UEUK euskarazko unibertsitatearen aldeko apustua egin zuen, hazia jarri zuen Baionan, eta ordutik hona UEU hedatu egin da, asko. Berrogei urte joan dira, eta ez dira alferrik joan. Sasoi hartan, borondatezko zenbait lagun elkartu ziren proiektua abian jartzeko, eta gaur egun, UEUK bestelako egitura bat dauka.

EHUtik UEUra

“Martin Orberen bidez sartu nintzen UEUn. Bi udatan egon nintzen berarekin UEUn. Garai hartan EHUari nintzen lanean, Euskararako Kabinete Teknikoan, orduan sortu berria. 1982 eta 83ko udetan, Martin Orbek laguntza eskatu zidan, matrikulazio garaian lagun niezaion Bilboko egoitzan, eta udako ikastaroetan. 1983an, Baleren Bakaikoak Martinen lekukoa hartu zuen UEUn, eta ni EHU utzi eta UEUn hasi nintzen lanean”.

Besteak beste, Markeskua Jauregi honetan du egoitza.

Egoitza soziala du Bilbon, eta hemen, Eibarran, Ikastetxe Nagusia. Gainera, urte osoko jarduerak burutzen ditugu, udan ez ezik. Garai hartan, aste bat, bi, ziren, udan egiten zirenak. Gaur egun, nahiz eta izena Udako Euskal Unibertsitatea dugun, urte osoan ari gara lanean lehen aipatutako lau lan-ildoetan.

Zer ekarri zioten UEUri Iruñeko Larraona ikastetxean hainbat urtez egin ziren ikastaroek? Aro berezia izan zen, urrezko aroa, beharbada?

Aro berezia, bai. Urrezko aroa... heltzear dagoela esaten dugu guk beti. Hobe espero dugu. Larraonako ikastaroen garaia jendetsua izan zen, espezialitateak indartu ziren eta argitalpenak ugari. UEUren lehenengo lau edizioak Ipar Euskal Herrian egin ziren, berrehun bat lagun biltzen ziren haietan. Jende gehiago bildu nahian, Hego Euskal Herrira ekarri zuten. Lehenengo asmoa, dena den, ikastaroak lurralde ezberdinetan egitea zen, baina baime-nak lortzea nahiko gauza konplikatu zen, Espainiako ministerioaren baimena behar baitzen, eta horrela, Iruñean finkatu ziren UEUren udako ikastaroak, helburua hori izan gabe ere. Egoerak behartu zuen horretara.

UEUren historiaz eta funtzionamenduaz idatzia zarenez, zein ditugu bide honetan mugarri?

Momentu historikoa izan zen, adibidez, 1984an Aralarako San Migelen egin zen mintegia, UEUren biderei buruzko gogoeta. Hasi berriak ziren EHUren uda ikastaroak, eta biak nola txertatu pentsatzen hasi ginen. Aralarreko saioa oso inportantea izan zen, bidea

markatu zelako, zuzendariek hortik jo zutelako gero. Horrela, 1986an, UEUK legezko kultur elkarte izaera hartu zuen. Beste mugarri bat, 1995eko kongresua, UEUren lehena. Bazkideza figura sortu zen han, eta UEU bazkidez osatutako elkarte modura egituratu zen. Bazkideak gero eta gehiago, gaur egun 1.200 bazkidezik gora gara. 2002-03an, bigarren kongresua egin zuen UEUK, eta gizartea aldatu den heinean, bere eginkizuna eta bidea egokitu eta moldatu ditu.

Garaian garaiko egoerari erantzuteko gai izan da UEU.

Bai, UEU erakunde dinamikoa da eta gizartearen premia eta beharrei egokitzeko gaitasuna izan du. 2010ean, beste aldaketa bat: irudi korporatiboa, gure eginkizuna birformulatu, gure ildo nagusiak zehaztu, zer garen, lan egiteko moduak, konpromisoak...

Nola asmatu du UEUK aldiro-aldiro bere burua birformulatzen? Asko ez da gai...

UEU beti izan da hausnarketa prozesu etengabekoan. Idazkari nagusi izan naizen urte guztietan ikusi dut hori: eguneroko lanari erantzun beharra izan da beti, baina horrekin batera, hausnarketa lerroa ere hor izan da. 2000. urtean ere aldaketa handia izan zuen

Partida nominala

"Ezinbestekotzat jotzen dugu Eusko Jaurlaritzaren partida nominala izatea. Kontuan hartzen dugu oraingo egoera ez dela duela bost urtekoa, murrizketak onartu genituen iaz ere, baina partida nominala kentzea oso mingarria izan zen".

UEUK. Ordu arte Bilbon genuen bulegoa, baina urte hartan, Xabier Iasiren garaian, jauzi kualitatiboa egin genuen. Bilbon egoitza soziala jarri genuen. Eibarren, ikastetxe nagusia, eta Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan —Baionan eta Iruñean—, ordezkariak ireki genituen. Horrek lan-taldea handitzea ekarri zuen, lauzpabost izatetik hamasei izatera iritsi ginen oso denbora gutxian. 2000. urtean, idazkari nagusia aldatu genuen. Ordu arte ni izan nintzen eta orduz geroztik Ane Sarasua dugu idazkari nagusia. Hausnarketaren beharra ere ikusi genuen, eta gestio-eredua lantzen aritu ginen, Elgoibarko Gestio-Eskolarekin elkarlanean. UEUren gestio-eredua idatzi genuen, eta barneratu genuen langileok eta zuzendaritzak. Horrela iritsi gara honaino.

Zein ditugu Ikastetxe Nagusiaren arduradunaren buruko min handienak oraintxe?

UEUren udaberriko eta udazkeneko ikastaro eskaintza, Eibarren eskaintzen direnak. Gainerakoan, Ikastetxe Nagusiaren kudeaketari dagozkionak. Markeskoa, izan ere, Eibarko Udalaren eraikina da, lagapen-itun bidez erabiltzen duguna. Eraikinak hainbat espazio ditu, gizarteari eskaini nahi izan dizkiogu, eta hainbat erakundek erabiltzen dituzte gure ikasgelak euren ikastaroak emateko. Sasoi

EGIZU HARPIDETZA EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Bailmen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELOPARRA
MENEN PINI

AZKEN HITZA

Eskertuta

“UEU eskola ezin hobea izan da niretzat. Euskalgintza eta unibertsitate alorretan lanean ari diren pertsona anitz eta askotarikoekin lanean aritzeko aukera paregabea eskaini dit eta oso eskertuta nago”.

batean, HABEk hemen ematen zituen ikastaroak, IVAP-HAEEn laugarren hizkuntz eskakizuna, Tekniker-en sormen ikastaroak, Ikastolen Elkartearen zenbait prestakuntza-saio...

Ikastaroak antolatzea batetik, Ikastetxe Nagusiaren kudeaketa bestetik.

Etengabeko prestakuntzaren esparruan formazioa behar duten profesional euskaldunen beharrak asetzea da gure helburua, eta bide horretan ikastaroekin nola asmatu da buruko min handienetakoa. Gaur egun, bizitza osorako prestakuntza da helburua, ezagupenak etengabe eguneratzen joan behar dugu. Garai batean, unibertsitateko ikasle eta irakasleak joaten ziren gehienbat udako ikastaroetara, baina gaur egun, 20 urtekoa zein 55ekoa datorkigu eta etengabeko prestakuntzan funtzio bat betetzen dugula ikusten dugu. Beraz, jende horren beharrei erantzuten saiatzen gara. Urte barruko ikastaroak laburrak izaten dira –hamabost edo hogeitau ordukoak–, eta, gero, jarraipena eskaintzen dugu, zenbait kasutan behintzat. Batean oinarritzeko ikaskuntza, bestean ikastaro aurreratuak. Aldi berean, bide berriak jorratzen saiatzen gara. Horregatik esan dut “nola asmatu”, jendearen formazio nahiak eta beharrak asetzen asmatzea.

EHUrekin harremanetan zarete, elkarlana ere baduzue. Eta herri erakundeekin?

Udalarekin, Diputazioarekin, Eusko Jaurlaritzarekin... baditugu harremanak, bai. Jaurlaritzarekin, 1998tik izan dugu hitzarmena. Azken urteotan, partida nominala izan dugu aurrekontuetan, eta pasa den urtean eten egin zuten bide hori. Guretzat oso inportantea zen, bizi-raupena ziurtatzen zigun. Bestelako laguntzak hainbat proiektu zehatzi esleitutakoak dira, baina partida nominal hori berezia zen, eguneroko kudeaketan laguntza handia zen.

Krisia arrazoi ala argudio, kendu zizueten partida hori?

Argudio, uste dut. Aurreko urteetan ere murrizketak izan genituen erakunde guztien aldetik, “diru gutxi dago” esaten ziguten, eta guri ere diru gutxiago jasotzea zegokigun. Baina murrizketa baino, partida nominala kentzea oso mingarria izan zitzaigun, errekonozimendu modu bat ere bagenuelako hori.



Horrek kolokan jarri zuen erakundea, hainbat neurri hartu behar izan genituen –hainbat lanpostu galdu ditugu–, baina gure asmoa da bide horretan aurrera egiten saiatzea. Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiekin hitzarmena sinatua dugu. Nafarroa, berriz, lehenengo erakundea izan zen hitzarmena sinatzen (1990ean), baina gero, handik zortzi bat urtera, eten egin zuten hitzarmena. EHUrekin ere badugu hitzarmen marko bat, Elea-niztasunerako errektoreordetzarekin, hainbat esparru jorrazteko: materialgintza, formazioa, datu-baseak...

1973tik hona hainbat aldatu da UEU, bateko mintegi eta besteko biltzar, egokitzen jakin du. Norantz doa, zein da UEUren etorkizuna?

2003an egin genuen azken kongresua, eta han markatutako bidea jarraitzen ari gara, aldiko moldaketak eginda. UEUren egitekoa garrantzitsua dela adierazi nahi dugu. Orain-txe, kanpaina bat egiten ari gara, “Ni ere UEU”, erakundearen garrantzia eta beharrezkotasuna gizartearen aurrean adierazteko. Izan ere, euskararen eta unibertsitatearen arteko zubiak eraikitzen jarraitu beharra ikusten dugu, eta horretan UEUk badu zer egin. Geroan zer izango den, bazkideek erabakiko dute, etengabeko prozesuan gaudenez. Gure ustez, UEUk funtzio bat betetzen du euskal gizartearen, eta horretan lanean jarraituko du.

Gizartea jakitun da, badaki zer lan bikain egiten duzun?

Saiatzen gara gizarteari jakinarazten, baina, egia esan, erakunde txikia gara, badugu komunikazio arduraduna eta gure eskaintzaren berri ematen saiatzen gara, baina ez guk nahiko genukeen beste, baliabideak oso mugatuak baititugu. ■



EMAKUMEAK KAZETARITZAN

Erredaktore bai, zuzendari ez

Gizarte matxista baten ondorio ez bada, nola ulertu EHuko Kazetaritza fakultatean azkeneko hamarkadan lizentziatu direnen %67 emakumeak izan arren –kalifikazio onenen %83 emakumeak izan arren–, EAEko erredakzioetan eta hedabideetako zuzendaritza taldeetan oro har gehiengoa gizonezkoak izatea?

| MARIJO DEOGRACIAS |

“BAINA ZE MANIA daukazuen emakumeek! Autokritika egin beharrean, edo akaso lanpostu horretarako nahikoa ez zaretela pentsatu beharrean, matxismoagatik dela uste duzue!”. Kazetari zenean nagusiarengandik jasotako hitz horiek eramane zuten Diana Rivero datuak begiratzera: “Zerbait aldarrikatzen duzunean, datuetan oinarritu ezean, beti dagoelako norbait prest kontrakoa argudiatzeko”. Eta datuak argiak dira: Estudio General de Medios (EGM) Espainiako Estatuko neurgailuaren arabera, EAEko hedabideetan zuzendaritza-kideen %76,9 gizonezkoak dira, erdi mailako postuetan %67,4 gizonezkoak dira eta erredakzioetan %62,7. *Emakume kazetarien egoera profesionala EAEko komunikabide nagusietan* tesian bildu ditu datuok Diana Rivero EHuko Kazetaritza II Departamentuko irakasleak.

Emakumeak eta Hedabideak jardunaldietan aurkeztu zuen tesia duela gutxi, eta azaldu zuenez, telebista da gizon eta emakumeen kopururik parekideena duena, baina horren atzean ere badago bestelako arrazoirik: “Irudia tartean denean, emakumeengana gehiagotan jotzen da”. Ondorio hori ateratu du Riverok, bere ikerketan egin zituen hiru eztabaida taldeetatik. “Beste kontu bat litzateke zer eskatzen zaien telebistan ari diren emakume kazetari horiei, hau da, eurek ematen den irudia zein den, protagonista gisa agertzen diren, ala laguntzaile gisa. Datua da *fifty-fifty* gaudela eta, profesionalek eurek aitortu zidatenez, irudia dagoen lekuetan emakumeek hobeto funtzionatzen dutelako izaten dela”.

Hedabideak barrutik

Tesian aztertutako hedabideak EGM-n agertzen direnak dira. Hala, 16 komunikabide



Telebista da gizon eta emakumeen kopururik parekideena duena, baina horren atzean ere badago bestelako arrazoirik: “Irudia tartean denean, emakumeengana gehiagotan jotzen da”, dio Diana Riverok.

aztertu ditu Riverok: *El Correo* (Bizkaia eta Arabako delegazioak), *Deia*, *El Diario Vasco*, *Gara*, *Berria*, *El País* (País Vasco edizioa), *El Mundo* (País Vasco edizioa), Punto Radio (delegazioa), Cadena SER País Vasco, COPE (delegazioa), Onda Cero (delegazioa), Radio Gorbea, Tele5 (delegazioa), A3 (delegazioa) eta RTVE (delegazioa). Jasotako datuen arabera, erredakzioan ari diren kazetarien %62,7 gizonak dira eta emakumeak berriz, %37,3. Tartea gehiago zabaltzen da zuzendaritzak begiratzuz gero: %76,9 gizonak eta %23,1 emakumeak.



ARGIA, Euskalerrria Irratia, 11 Telebista, Goiena taldea eta Anboto astekariak denden artean ematen duten emakumeen batez bestekoa altuagoa da tesiko datuena baino. Irudian, Euskalerrria Irratiko langile emakumezkoak: eserita, ezker-eskuin, Amaia Lasa teknikaria eta Maialen Huarte kazetaria; zutik, Reyes Ilintxeta kazetaria eta Sarah Ripodas gerentea; eta argazkia egiten, Oihane Arangoa kazetaria.

Argazkia osatze aldera, euskaraz ari diren beste hainbat hedabidetan egoera errepikatzeko al den jakin nahi izan dugu. ARGIA, Euskalerrria Irratia, 11 Telebista, Goiena taldea eta Anboto astekariko datuak eskatu ditugu. Hauetan ere, ardura dutenen artean gizonen %58,3 dira gizonak. Erredakzioetan egoera bestelakoa da. Kasu honetan, badago, baina, alde nabarmen bat Rivero irakaslearen tesian jasotako datuekin konparatuta: erredakzioen feminizazioa ematen da euskaraz ari diren hedabide horietan: %62,4 dira emakumeak. Goienako (%64), 11 Telebistako (%55,5), Euskalerrria Irratiko (%57,1) eta Anbotoko (%83,3) erredakzioetan emakumeak dira nagusi. Aldiz, bost hedabide horietatik emakume bakarra da zuzendaria: Durangaldeko Anboto astekarian. Ikusten denez, beraz, argazkia errepikatu egiten da, hedabide handi nahiz txikietan: *El País*, *El Mundo*, *La Vanguardia*, *El Periódico de Catalunya* eta *La Razón* egunkarietako erabakiguneetan %14 baino ez dira emakumeak eta zuzendaririk batere ez, ezta gurean argitaratzen direnetan ere.

Emakumeen presentzia medio publikoetan

Hedabide publikoen kasuan, legeak dio parekidetasunaren alde lan egin behar dutela.

Erredakzioan ari diren kazetarien %62,7 gizonak dira eta %37,3 emakumeak. Tarte gehiago zabaltzen da zuzendaritzak begiratzuz gero: %76,9 gizonak eta %23,1 emakumeak

Zehazki, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 26. artikulua hitzetan, “gizarte-komunikabideek emakumeen parte-hartze aktiboa eta sexu bien presentzia orekatua eta irudi anitza bermatu behar dute, edertasun-kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzako arloetan betetzen dituen eginkizunei buruzko estereotipo sexistetatik aparte”. Baina, beste hainbatetan bezala, kasu honetan ere ez da legea betetzen. Datuek diotenez, emakumeen presentzia ez da inondik inora proportzionala. Aztiker ikerketa soziologikoen zentroak egindako txostenaren arabera (2010), EiTbko albistegietan agertu ziren protagonisten %75 gizonenak ziren; kirol gaitan (%91), politikan (%73) eta ekonomia albisteetan (%69) eurak izan ziren aktore nagusi; emakumeak protagonista izan ziren gertuko albisteetan (%35), kulturean (%29,7) eta gizarte gaitan (%25,5). Hala ere, Berdintasun

legea edukiez ari da, eta ez hedabide publikoetan lan egiten duten profesionalen. Langilearen eskemari buruzko adibide bat jartzearen, Euskal Irrati Telebistaren Administrazio Kontseiluaren osakerari erreparatuta, 19 kideetatik 5 baino ez dira emakumeak.

Riverok aitortu duenez, kazetaritzan ere, beste lan arlo guztietan bezalatsu gertatzen da: aginte-lekuetan gizonak dira nagusi, eta okerrera da postuz igotzeko aukerak ere

askoz murriztagoak direla. Zergatik? “Kargudunen edo alboko izendapenak egiterako orduan gertukoengana jotzeko ohitura nagusitzen delako kazetaritzaren kasuan. Eta nortzuk dira gertukoak? Bada, lan eremutik kanpo erakitzen diren harremanetatik datozenak. Eta eremu horietan ez dira egoten emakumeak”,

dio Riverok, jakinda hori ere ez dela kazetarien eskusiba. Hau da, “emakumeak ez dira eremu horietan egoten, behin lana amaituta kontziliazioaren esparrua datorrelako, eta horrek, oraindik ere portzentaje handi batean, emakumeen egitekoa izaten segitzen du”.

Ikasleek ez dute pertzepzio hori

Belaunaldi gazteagoekin batera egoera aldatzen joango zen esperantzaz aritu zen ikerketa egiten unibertsitateko irakaslea. “Baina, zoritxarrez, ereduak errepikatu egiten dira.

“Ikasleek ez dute egoera horrela ikusten. Esparru akademikoan ikasleak esfortzuaren arabera saria jasotzen du eta ekuazio horretan ez da existitzen bakoitzaren generoa aldagai gisa”

Diana Rivero, tesiaren egilea

Erredakzio zaharretako molde berberak islatzen dira erredakzio digitaletan ere: agintzen dutenak gizonetzkoak dira. Eta eskatzen dena ez dira pribilegioak, baizik ez diskriminaztea”. Halaxe esan zien EHUko kazetaritza fakultateko ikasleei, aipatu jardunaldietan. “Ezagutzaren ateak ireki direnean, erruz sartu gara emakumeak unibertsitatera, are gehiago kazetaritza fakultateetan, baina lan mundurako jauzia ez da proportzio berean gertatzen, kristalezko sabai ditzosozkoak ere hortxe segitzen du. Erredakziora heldu arren, saileko arduradun izatera edo zuzendaritzetara iristen direnak gutxienak dira”. Riverok gaineratu duenez, ikasleekin gaiaz mintzatzen denean, “zertaz ari naizen galdetzen didate. Ez dute egoera horrela ikusten, medioetan, plaza publikoan, ez dagoelako eztabaida hori. Esparru akademikoan ikasleak esfortzuaren arabera saria jasotzen du eta ekuazio horretan ez da existitzen bakoitzaren generoa aldagai gisa”.

Baina egia zera da, EHU 1999-2009 urteen artean, kazetaritzan lizentziatutakoen %67 emakumezkoak diren arren, portzentaje horiek alderantzikatu egiten direla lan munduan: “Erredakzioetan %67 dira gizonetzkoak eta zuzendaritza taldeetan esan daiteke emakumeen presentzia anekdotikoa dela”. Irakaslearen ustez, “emakumeok zigortu egiten gaituzte eta aukerak lapurtzen dizkigute, lanpostu hori betetzeko formakuntza badugun



Diana Rivero, Emakume kazetarien egoera profesionala EAEko komunikabide nagusietan tesiaren egilea.

arren. Atentzioa deitzen dit gaur egun ere kondenatuak izaten segitzea emakume jaio-tzeagatik”. Datuetan oinarritzen du argudioa: EHUko kazetaritza fakultatean lizentziatu direnen artean 15 kalifikaziorik onenak dituzten ikasleen %73 emakumeak dira (1999-2009 urteen artean aztertutako 150 ikasleren artean).

Kontuak kontu, Riverok mezu baikorra helarazi nahi du: “Ez dut uste utopikoa denik aldaketan pentsatzea; are gehiago, kuota orekatuak egongo balira diskriminazio positiborik ez litzateke behar izango eta horrek zerikusi zuzena dauka profesional bakoitzaren merituen aintzat hartzearekin; hau da, kapital humanoaren lehenestarekin”. ■



lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



DANI BLANCO

**Amaia
Lasa
Alegria**



IDAZLEA

Feminismoaz hausnartzen

EZIN DA ukatu mugimendu feministak izan duen garrantzia, emakumearentzat bereziki, baita gizonarentzat ere, gizarte ororentzat azken finean.

Hala ere, feminismoak nahigabea, egoenezina, gorrotoa sortzen ditu oraindik ere. Gai honetaz mintzatzen dihardugunean badirudi modaz kanpo dagoen gai baten inguruan ari garela, aspaldidanik gainditu den gai aspergarri batez. Emakumeen eta gizonen arteko harremanak okertu dituen gatazka gainditu dela esan ohi da, baina ez gara ohartzen benetan banandu gaituen arazoa oraindik indarrean dagoen matxismoa dela.

Ikusi besterik ez dugu Bangladeshetik heldu zaigun berri mingarria: ehunka emakume sutan erreta, harri azpian zapalduak. El Salvadorren bururik gabeko umeki batek emakume baten bizitzak baino balio gehiago izatea, gurean gertatzen diren erailketak, tratatu txarrak...

Borroka feministaren helburu nagusia gizonak emakumearen gain mantendu nahi duen agintearekin bukatzea da, andreak pertsona libreak garela aldarrikatuz, bi generoen artean luzaroan sortutako zauri samingarriei amaiera emanez.

Emaztea ikaragarri ahalegindu da, gogor lan egin du bere burua prestatzen, heziketan sortu zaizkion ekaitz guztien aurka. Akats bat egin dugu hala ere, gizona hartu baitugu xedetzat, beti pentsatu dugu gizonak egin zezaketen guztia guk ere egin genezakeela, oker genbiltzan

Gaur egun, iraganean aurreratutako guztia galduta edo geratuta dagoela ematen du, ezer aurreratu ez bagenu bezala, auziak gure artean dirau oraindik. XXI. mendean emakumeak bazterturik jarraitzen duen sozietate honetan ezer ez dela aldatu dirudi, lan asko egin bada ere.

Feminismoa emakumearen garrantzia aldarrikatzen duen mugimendua dela uste

du askok, baina andreak beti izan dute beren garrantziaren berri, mugimendu honek zinez nahi duena emakumea birgizarteratzea da, bera ere partaide eraginkor den sozietate honetan, eskubide eta aukera osoa duen pertsona bezala onartua izan dadin.

Azken urte hauetan emaztea ikaragarri ahalegindu da, gogor lan egin du bere burua prestatzen, heziketan sortu zaizkion ekaitz guztien aurka. Akats bat egin dugu hala ere, gizona hartu baitugu xedetzat, beti pentsatu dugu gizonak egin zezaketen guztia guk ere egin genezakeela, oker genbiltzan. Gizona bezalakoa izatea edo honek egiten duen berdina egitea ez da gure helburua, ironia eta gorrotorik gabe diot. Gure benetako helmuga pertsona izatea da.

Emakumeok zer-nolako pertsona izan nahi dugun pentsatu, asmatu, amestu beharrean aurkitzen gara, ez baitago eredurik. Egungo emakumearen ideia, kontzeptua, bizi garen gizarteko ideologia menderatzaileari loturik dago, jorratutako bide zahar, zapalgarriak atzean utzi behar ditugu.

AEBetako esperientzia handiko feminista batek zioenez “gizona boterea izan ezik beste guztia emateko prest dago”. Boterea hartu behar dugu noski, baina zerbait berria eraikitzeko, orain bizi dugunaren funtsa, muina, emakumearen bazterketan datza. Sozietate antolamendu mota honetan gizasemeak du agintea, berari bakarrik komeni zaizkion legeak egingo ditu, umekia haurra dela esango du bururik ez badu ere.

Emakumeak egoera sakonki aldatzeko asmoarekin hartu behar du boterea, indar handia izatea tokatzen zaio sakoneko aldaketak egiteko. Berdintasunean bizi nahi bada pertsona, sozietate berriak hezi, sortzea da geratzen zaigun aukera bakarra.

“...Eva beltzaren alabak.../Argiaren egarri/ bizitzaren agintari/ libertatearen borrokari/ lurralde berrien eragile/ eguzkiaren bideetan goaz/ amets berriak eraikiz”. ■





Jon Alonso

ITZULTZAILEA ♦



JOSU SANTESTEBAN

Gezurrezko eta egiazko izenak

LITERATURAN beti eman izan zaie garrantzi berezia narrazioen protagonisten izenei. Hainbat esanahi sekreturen edo agerikoren jabe ohi dira izenok, asmo konfesagarri edo konfesaezinen gordailu, indar metaforiko edo mezu narratibo baten eramailak, baina ia inoiz ez errugabeak. Idazle batzuek miresten dituzten beste idazle batzuk omentzen dituzte beren pertsonaien izenen bidez, Andrea Camillerik bere detektibeari Montalbano komisarioa ipini zionean bezala; Alicia Giménez Bartlett idazleak kontuan hartu zuen izenak berak definitu behar zuela, hasieratik, bere pertsonaiaren izaera, eta Petra Delicado ederra, erdi metafora erdi oximoron, asmatu zion bere protagonistari, Pío Barojak bereetako bati, bakarzale eta aldrebesenari, Silvestre Paradox bezala; ez dago frogatuta Anjel Lertxundik osotasuna edukiko ote zuen buruan inguruan gertatzen zenaz ezer ez zekien Osorio pertsonaiari izena jarri zionean, baina ez da erabat alde batera uztekoa; beste batzuk, bere itxurazko sinpletasunean, musikaltatean, esangarritasuna eta ahoskera aintzat hartu dituen hausnarketaren ondorio izaten dira, ezkututzen dituzten pertsonaia

Errealitatearen metafora, paradoxa, mendeku, oroitzapen, parodia... halakoxeak izaten dira fikziozko izenak. Alferrik da fikziotik errealitatearen aurka lehiatzea, ordea. Uste dut horretaz denok garela jakitun, dagoeneko

errealak inolako zalantzarik gabe –baina beharrezkoa den distantzia gutxienez– gogora ekartzeko, Harkaitz Canoren Soto eta Zeberio lez.

Beste batzuetan, fenomenoak alderantzizko norantza hartzen du, eta errealitatea da fikziozko izenaren jabe egiten dena. Hala, psikologian Dorian

Greyren sindromea omen da zahartu nahi ez denaren gaixotasuna, Oscar Wilderen pertsonaiaren omenez, edo Huckleberry Finnena aldiz, erantzukizunak hartzeari tirria dion helduarena, Mark Twainren heroia ibileren kariaz.

Errealitatearen metafora, paradoxa, mendeku, oroitzapen, parodia... halakoxeak izaten dira fikziozko izenak. Alferrik da fikziotik errealitatearen aurka lehiatzea, ordea. Uste dut horretaz denok garela jakitun, dagoeneko. Esaterako, errealitatean halakorik izan ez balitz, eta nik nobela batean Laespada jarri izan banio Euskal

Herriko talde bakezale baten bozeramailari, euskal literatur erakundeak sinestegarritasunak oro ukatuko zidakeen. Eta agian epaileak zer esango zain egongo nintzatekeen. ■



DANI BLANCO



Edu
Zelaieta



IDAZLEA

Kuttun-gai

5A ETA 7A ditugu etxean zenbaki kuttun. Badakizue, umetan hartzen diren ohitura horietako bat. Izan ere, haur guztiek aukatzen dute noizbait haien zenbaki kuttuna, eraikitzen joaten diren identitatearen beste zati txiki bat, beste piezaño bat. Konplizitateak suertatzen ohi dira adiskideen artean: horrako horrek halako zenbakia duelako, nik ere zenbaki bera gustuko. Kontu pertsonala dela pentsatzen badugu ere, hautu soziala dugu funtsean, inguratzen gaituen jendarteak bultzatzen baitaitu zenbaki bat –ez bi, edo lau– geureganatzera. Nork bere zenbaki kuttuna edukitzea

beharrezkoa da berdinen artean homologatua egoteko.

“Aitatxo, zein da zure letra kuttuna?” galdetu zidan xalo-xalo lehengoan 4 urte eta erdiko semeak. Ezustean harrapatu ninduen galderak. Hasieran, irri egin nuen, ume txiki baten ateraldi xelebrea zelakoan. Ondotik, baina, umeek baliatzen duten logika logikoaz ohartu nintzen: zenbaki kuttunik baldin badago, letrak ere izaten ahal dira kuttun-gai.

Neure letra kuttunaren bila nabil. Inoiz ez da berandu norberaren puzzlea osatzeko. ■





Mikel Asurmendi

◆ ARGIAKO KAZETARIA

Iparraldeko politikaren mirail zartatua

LURRALDE ELKARGOAREN aldeko manifestazioan (Baionan, ekainaren 1ean) egonezina sumatu zen hastapenetik: “Jendea ez da usaian bezala heldu”. Bati galdetu besteri galdetu, baikortasun aire bat antzeman zitekeen alabaina.

Manifestazioaren biharamunean galdera bat jalgi zen: zein izan da ohi baino jende gutxiago bildu izanaren arrazoia? Datu ofizialaren arabera bildu ginen 6.000 lagun beharrean, ohiko 10.000 lagun izan bagina, ez litza-teke horrelako galderarik jalgiko.

Egonezinak galdera, ihardespen eta burutapen zenbait iradoki zizkidan:

– Deialdia inoiz baino eragile politiko gehiagok egin zen, gizartearen sektore guztiak zeuden inplikatuak. Alta, beharbada, horregatik berarengatik, orain arte eginak izan diren helburu bereko manifestazioen antolaketaz da beti bezala bururatu. Tokian tokiko herri elkarte inplikazioa ez da aski barneratu izan. Eragile politikoen zeregin soila bailitza agertu da ekitaldia. Argazkiak eite instituzionaleria ote zeukan, naski.

– Iparraldeko instituzioaren aldeko borroka, politikagintza-ren mirail bihurtu da hegoaldekoen begietara. Azkenaldion, abertzaleek politika egiteko mirail gisara aipatzen dute; ezker abertzalekoek bereziki. Alta, ezker abertzalekoek –guztiak– beren burua eroso ikusten al dute *frantses banderola* paparrean daramaten politikarien ondoan?

– Euskal preso politikoen aldeko manifestazioa herritarrek hunkitzen dituen deiadarra da. Gai bakarra. Estatuek presoen

eskubideak bete ditzaten egiten da aldarri, legearen araberrako espetxe politika ezartzeko aldarrikatu ohi da. Gisa berean, AHTren aurkako edo euskararen aldeko deialdiek bestelako erakarpina daukate. Hots, oraingon, deialdiak edota deiaren zioak ez du aski zirrarak eragin popularen baitakoan. Bestalde, Hegoaldeko jende multzo zabala heldu ohi da. Manifestazio honek tokiko jendea bildu zuen.

Manifestazioaren ondoan beste egonezina zabaldu da. PSko senatari Espagnac-ek sortu du nahigabea

Horiek horrela, manifestazioaren ondoren beste egonezin bat ere zabaldu da. PSko senatari Frédérique Espagnac-ek sortu du nahigabea. Lurralde Elkargoaren sustatzaile honek Senatuan emendakin bat aurkeztu du bere kasa. “Antolamendu eta kooperazio polo” egitura galdetzen dio Gobernuari Iparralderako. Estatuen Deszentralizazio ministro Marylise Lebranchuk adostasuna ekarri(ko) bide dio Espagnac-en asmoari.

Manuel Valls Barne ministroaren oniritzia baino ez zaio falta proposamenari. Boterearen ahalmena mugagabea da. Inongo politikaren miraila zartatzeko ahalmen infinitua du Estatuak. Aro politiko berria heldu omen da gurea. Edo zaharrak berri ote Euskal Herrian? ■



**BERTSO
BERRIAK**

Ruben Sanchez



Doinua: Ternua.

Garoña



40 urte luzetan mehatxu bat nabarmena, Gu eta gure ingurua guztiz suntsi lezakeena, ez die axola izateak kontra jendarte gehiena, noiz eman behar digute Garoñakin su-etena? Batzutan erretzen denez suakin jolasten dena, ez dadin pasa gurean Fukushima pasa zena, “istripua” izan aurretik segurua omen zen dena “istripua” izan ondoren alperrik da azalpena.

Itxita beharko luke Garoñak dagoeneko, sekula ireki ez balitz litzake askoz hobeto, espaniar estatua dago argindarrez lepo alde horretatik ere Garoña ez da beharrezko. Lanposturik galtzen bada bailara horren kalteko lana sor dadila baina ez nuklearren menpeko, eskubiderik ez dute gu arriskuan jartzeko ta are gutxiago soilik bada batzuk loditzeko.

Galdera normalena da: zergatik ez duten eten, erantzuna da: “begira, eskumena nortzuk duten” morroi gorbatadun batzuk orain sartu gero irten, bulegotik bulegora alderik ez da ikusten, gobernu baten dagona traje garestia janzten, trajea aldatu ta gero dago elektrika baten, Iberdrola edo Endesan berdin PSOE ta PPn orain ulertzen dut ondo zergatik ez duten ixten. ■

«Ez da gauza bera hitz bat paperean, hizketan edo kantuan»

Ken7-rekin daraman ibilbide arrakastatsuan parentesia egin eta Deserriko kankar lanarekin dator Eñaut Elorrieta (Gernika, 1975). Bere deserri partikularra zeharkatuta, gure erbestera eraman gaitu.

| SUSTRAI COLINA |
Argazkiak: Dani Blanco

Zergatik bakarka?

Inongo helbururik gabe, niretzako kanta batzuk konposatzen hasi nintzen, poema zenbait hautatu eta musikatzeko. Gerora ohartu nintzen aukeratutako testuak deserriaren ingurukoak zirela, balizko hari bat izan nezakeela, eta ilusio gogoak pizturik hariari tiraka ibili naiz. Ez dut sekula pentsatu “bakarkako bat atera behar dut eta ea zeri heltzen diodan...”. Bidean nahigabe murgildu eta bidean josten joan naizen lana da. Bidera atera zaizkidan arazoak bidean erantzun diet. Oso pertsona arrazionala naiz neurek, dena burutik filtratzen duten horietakoa, baina oraingoan gorputzak agindu dit, bere inpulsoek mugitu naute. Atzera begiratu, oster, konturatu naiz azken urteak aldaketa askoko urteak izan direla niretzat: Gernikatik Getariara etorri nintzen bizitzera, aita izan naiz, irakasle lana utzi eta nire denbora musikari eskaintzea erabaki nuen... Ez da kasualitatea izango deserriari heldu izana, ez da kasualitatea gaira ertz ezberdinetatik hurbildu eta abesti guztietan ni sentitzea.

Kasualitatea da erabaki guztiak zure esku egon direnean egin izana topo zure mugekin?

Satisfakzio eta etsipen uneak askoz intentsoagoak izan dira. Hainbat jende lagundu arren, nirea zen erantzunkizunaren lema, eta egunero zegoen zer erabakia. Perspektiba galtzeko beldurra nuen, deserriaren gaia astunegia eta trinkoegia ote, hori zen duda, ez nekien zer uretan murgiltzera nindoan, itoko nintzen... Eta gainera, mamu horiek kudeatzen nituen

bitartean, lanean jarraitu beharra neukan. Fisiologi eta psikologikoki gogorra izan da. Hasieran dena zen plazera, dena jolasa, baina argitaratuko nuela erabaki nuenetik noiznahi agertzen zitzaizkidan mugak. Horregatik diot, musikalki ez ezik, pertsonalki ere oso aberasgarria gertatu zaidala bidea. Nire buruaren bila ibili naiz, nire inertiarekin borrokan. Niretzat, arriskatzeko nire mugei eta beldurrei aurre egitea da. Prozesuaren une askotan sentitu naiz kolokan, zabuka, baina behin hortik pasata, oso zintzoa izan naizelakoan nago, eta oholtzan inoiz baino gehiago naiz ni, nire argi eta ilunekin. Zalan-tzek eta ikarek indartsuago egin naute, eta biluztasunean ere babestua sentitzen naiz.

“Niretzat, arriskatzeko mugei eta beldurrei aurre egitea da. Prozesuaren une askotan sentitu naiz kolokan, zabuka, baina behin hortik pasata, oso zintzoa izan naizelakoan nago, eta oholtzan inoiz baino gehiago naiz ni”

Zergatik disko kontzeptual bat?

Hasieratik arrazionalki jokatu izan banu, beldurturik atzera egingo nuen. Askok zirikatzen naute “jendea mugitzen duzun talde sendo batean zaude, primeran doakizue, eta zuk lelorik gabeko disko kontzeptual bat ateratzen duzu!”. Ez dut ezer aurreikusi, ez dut ezer programatu, bidean sentitu dudaren arabera eraikitako diskoa da. Agian, hartzen ari nintzen arriskuen kontzientzia ez izateak eman dio naturaltasuna egin dudanari. Izan ere, nire zalantza eta mamuekin topatu arren, izugarri gozatu dut prozesu guztian. Horrek azken emaitzaren balizko harrerari gutxiago erreparatzea ahalbidetu dit. Ados, argitaratzeko beti daukagu emaitzaren harra barruan, baina ez nau gaitundia, ez zait gaitundia, eta sorkuntza artistikoa lehenetsi dut. Arnasbe-



• ERDIKO KAIERA

zer topatuko duzun eta nora iritsiko zaren jakin gabe. Bide horietan barna sortzen duzu berria, eta sortzen duzuna berria ez bada ere, sentsazio berrietatik pasatzeak bestelako arrasto bat uzten du zure sorkuntzan. Jarrera hori, oster, ez da artistiko hutsa, bizi filosofia bat ere bada. Kontrolatzen dituzun egoeretan soilik mugitzen zarenean, oso zaila da espero ez duzunik gertatzea, eta ezusteko txikiak berehala aztoratzen zaitu. Zure errutinatik, seguru sentitzen zaren eremutik mugitzean ordea, sentsazio berriak bizitzeaz gain, zure erdigunea agian beste espazio bat dela jabetzen zara. Urruntzeak dakar perspektiba, bestela ohitu egiten gara egoera konkretuetara, sentsazio eta emozio jakin batzuk sortu eta sentitzera, gure lana horren arabera neurtzera. Zentzu horretan, bai, mugiarazi nau disko honek. Ez dut sekula lan bat bukatu gauza berriei ekiteko hainbeste gogorekin. Oso aberasgarria izan da niretzat, beldur batzuk gaingitu eta beste batzuk sortu zaizkit, kezka berriak, esploratzeko lur berriak... Diskoak bizirik sentiarazi nau.

Diskoan hitzek pisu handia dute. Hizkuntza bera dira poesia eta kantuletrak?

Niretzat ez. Ez da gauza bera hitz bat paperean, hizketan, edo kantuan. Hortaz kontziente izanik, poesia malgutasunez eraldatu eta musikaren bidez indartzeko aukera izan dezakezu. Aukeratu ditudan testuetatik bat bera ere ez dut hitzez hitz mantendu. Horrek ahalbidetzen dit poesiaren esentzia musikalki janztea.

Gainera, letra batetik abiatutako kantu batek potentzial handiagoa izan dezakeelakoan nago. Gero, bakoitzaren abildadearen arabera ere bada. Niri idaztea gustatzen zait, gozatzen dut, baina ez da nire bertute nagusia. Hasieran ez neukan nire letrarik sartzeko asmorik, ez nuen nire burua horrekin estutu nahi. Doinuarekin batera ideia batzuk bururatu, apuntatu, landu, gustatu eta sartu egin ditut, idazle handi horien artean nire izena agertzeak erreparoa eman arren. Bakarka sortzen ari zarenean, funtsean, dena pasatzen da zure galbahetik. Aukeratzen dituzun poemak iritsi zaizkizulako hautatzen dituzu, baina zuk, zure erara, zure kezka eta dohaineekin, zure mundu pro-

rritzeko, nengoenetik mugitzeko grina neukan. Gure emozio eta gorputzetatik at, inguruko estimuluei begira bizi den jendarte batean gaude. Etengabe lantzen ditugu horren arabera estrategiak, eta oso gutxitan jartzen gara guri so, zer nahi dugun, zer emozio dauzkagun... Hori ere bada deserria. Diskoan deserri politiko edo sozialaz kantatu arren, lekuz kanpo sentitzeaz ari bainaiz, ez lekuan egoteaz, neure deserri partikularra zeharkatu dudana seinala.

Deserriak zeharkatzea da gure buruak behin eta berriz ez errepikatze bidea?

Bizitzan arriskuak hartu behar dira, eta arriskatzea, ondua ez zaren bideetatik ibiltzea da,

“Oso pertsona arrazionala naiz neurez, dena burutik filtratzen duen horietakoa, baina oraingoan gorputzak agindu dit, bere inpulsoek mugitu naute”.



“Gure emozio eta gorputzetatik at, inguruko estimuluei begira bizi den jendarte batean gaude. Etengabe lantzen ditugu horren arabeko estrategiak, eta oso gutxitan jartzen gara guri so, zer nahi dugun, zer emozio dauzkagun... Hori ere bada deserria”.

denbora eta energia asko murriztu dira. Niretzat, herri baten osasuna bere kulturari ematen dion garrantzian neur-tzen da, eta instituzioetatik bederen, musikagintza eta kul-turgintza ez dira beharbeste zaintzen.

Ni independentista naiz, baina independentzia edukiz mamitu behar dugu, eta bakoit-zak bere alorrean indepen-dentzia zertarako nahi duen argi izan. Nik musikagintzatik garbi daukat herri honek inde-pendientea behar duela, bere erabakiak eta eskumenak behar dituela, inguruko estatuek ez gaituztelako zaintzen, ez gai-tuztelako maite. Aldi berean, ordea, hala pentsatzen duten eta maila batean edo bestean botere ahalmena duten esta-mentu politikoek ez dituzte oraingoz premiazko neurriak hartu gure kultura zaindu eta bultzatzeko. Herriak oso mai-tatu eta babestu nauela sentitu dut, erakundeez ezingo nuke beste horrenbeste esan. Ez dut ikusten kultur plangintza serio-rik. Horrela gabiltza gero: jan-edanarekin alderatuta, sortzai-

leen lanak piperririk ez duela ardura sinetsita. Erratze galanta iruditzen zait.

Musikagintzaren oinarriak dantzan egonda, zu disko landu batekin agertzea euskarriaren aldeko aldarria da?

Inertia batzuk daramatzat arrastaka, eta gehiago zentratu naiz sorkuntzan, sorkuntza hori plazaratzeko formatuaren gogoetan baino. Ez diot heldu zabalik dagoen forma-tuaren eta formatu ezaren eztabaidari. Erraze-nera jo dut, orain arte egin izan dudanera, egi-ten dakidanera. Aipatu didate ez direla garai onenak halako abenturetan murgiltzeko, baina niretzat krisiak erronka aukerak ere badira, eta begi horiekin aztertu dut egoera. Urtea oso emankorra izan da zentzu horretan, eta orain

pioa marrazteak entzuleari interesa pizten diola uste dut.

Deserriak balio du musikagintzak bizi duen panorama definitzeko?

Ez dira garai errazak. Krisiaren aitzakian, musika industriak eta erakundeez murrizketa handiak egin dituzte. Inbertitzen den dirua,

“Musika ofizio bihurtzea askatzailea izan da niretzat. Ez dakit zer izango den nire bizitza 50 urte barru, baina unea bizi nahi dut, gustatzen zaidana eginez, eta horren aldeko apustua egin izanak biziberritzen nauela jakinik”

ikusiko da ardurabakoa izan naizen eta nire buruaz beste egin dudan ala ez. Ezezkoan nago. Orain arte oso *feedback* positiboa jaso dut, eta egoera honi hortzak erakutsiz egin nahi nuke aurrera.

Agian, arduragabekeria irakasle lana utzi eta musika ogibide bihurtzea zela esango zizuten.

Erabakia hartzea izugarri kostatu zitzaidan. Txikitatik gaude programatuta ikasketak egin, lanpostua aurkitu, familia izan, eta tarte libreetan gustatzen zaiguna egiteko. Oso lotuta bizi gara, sistemak bere horretan segi ahal izateko pilak bagina legez. Denbora benetan egin nahi nuenari eskaintzeko premia sentitu nuen. Gainera, Lur jaio zen, aitatasun eredu konprometitu bat aukeratu nuen, eta denbora gutxiago izateak aukeratzea eskatzen zidan. Horrez gain, ‘niri zer gustatzen zait?’ galdeztzen nion nire buruari. Argi neukan: kantatzea eta sortzea. Orain izugarri gustura nago emandako pausoarekin, musika ofizio bihurtzeak dena polita ez duen arren. Askatzailea izan da niretzat. Ez dakit zer izango den nire bizitza hemendik 50 urtera, baina unea bizi nahi dut, gustatzen zaidana eginez, eta horren aldeko apustua egin izanak biziberritzen nauela jakinik. Era berean, sortzaile eredugarri asko daude, euren bizitza guztia sormenari eskaini diotenak, Euskal Herriari asko eman diotenak, eta erretiro adinera helduta oso panorama beltza daukatenak. Horrek asko arduratzen nau herri perspektiba batetik, gure sortzaileak ez ditugula zaintzen frogatzen didalako, eta ikuspegi pertsonal batetik ere zer pentsatu handia ematen dit.



“Atzera itzultzeko modurik ez daukazunean soilik egiten duzu salto”.

Desberdin bizi duzu musika ogibide duzunetik? Badu eraginik zugan?

Irakasle nintzenean, eta musika aisi serioztat hartzen nuenean, nolabait esatearren, askeago nintzen, nire ofizioa bestea izateak askatasuna ematen zidalako. Musika ofizio bihurtu dudanetik ostera, askoz gehiago arriskatu dut. Agian, logikak kontrakoa eskatzen zuen, baina niri horrela ateratzen zait. Horretara dedikatzea erabaki aurretik ez zaizkizu atea irekitzen. Ikastolatik eszedentzia hartuta sortzen nuenean ere, banekien lanpostua zain neukala, eta ez dut uste emozionalki eta psikologikoki erabat sormenera abandonatu nintzenik. Erabakia zinez hartu nuenean etorri zitzaizkidan aukerak, ideiak, urratzeko bide berriak, musikarekin lotuta dauden alor batzuetan burua sartzeko asmoak... Atzera itzultzeko modurik ez daukazunean soilik egiten duzu salto. ■



HOTELA IRIARTE JAUREGIA *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com

ERDIKO KAIERA

STOCK UMOREA

Barrearen gaineko heziketa eta turismo aktiboa helburu

Arte Eszenikoen Nazioarteko Udako Eskolari deitu diote Stock Umorea. Lekeitioko Kale Antzerki Jaialdiarekin lotura estua du eta Josu Bilbao (Salitre Teatro) eta Aitor Basauri (Splymonkey) aktoreek sortua da. Bete-beteen komediari eta show businessari emana dator estreinako edizioa. Hala, clowna, dantza, jantzi diseinua, gidoilaritza eta aktoreen zuzendaritzaren gaineko ikastaroak eskainiko dituzte bertako zein atzerriko irakasleek, ekainaren 24an hasi eta uztailaren 14ra bitartean.

| MYRIAM GARZIA |

Argazkiak: Lekeitioko Kale Antzerki Jaialdia

ZAILA DA Aitor Basauri eta Josu Bilbao elkarrekin harrapatzea, biak aktoreak izaki, puntatik puntara baitaramatza ofizioak. Aitor Basauri Londresen bizi da, berak sortutako Splymonkey antzerki taldea zuzentzen du han. Josu Bilbao, berriz, Euskal Herrian eta Madril-en bizi da, eta aspaldi sortutako Salitre Teatro taldean aritzen da, besteak beste. Antzerkiaren sektorea dinamizatu asmoz sortu dute biek Stock Umorea udako eskola. “Badakigu apus-

tu gogorra egin dugula, baina lehen edizioa besterik ez den honek jarraipena izatea nahi genuke”, azaldu digute haiekin bildu orduko. Imanol Agirre ere haiekin da, Lekeitioko Kale Antzerki Jaialdiko kidea: “Urtez urte sendotzen joan dadin nahi dugu. Egia esan, testuingurua ezin hobea da eta baldintza guztiak betetzen dira hala izan dadin. Lekeitioko udalaren laguntza jaso dugu, Kale Antzerki Jaialdiko jendea ere oso kontent da”.



Imanol Agirre eta Josu Bilbao, Lekeitioko Kale Antzerki Jaialdian, iaz.



Komedia eta show businessaren inguruan murgilduko da udako antzerki eskola. Ekainaren 24tik uztailaren 14ra, hiru astez, hainbat ikastaro izango dira: *klown master class* deritzona, dantza edota mugimendu komikoa eta erridikulua, gidoia eta komedia, ikus-entzunezko komediara bideratuta dagoen aktoreen zuzendaritza, jantzien diseinua eta atrezzoak, eta umorea eta telebista lotzen dituzten ikastaroak. Aitor Basaurik zehaztu duenez, “umoreari eskani nahi izan zaio eskola. Alde batetik, gure lan eremua delako, eta bestetik, beharrezko ikusten dugulako publikoa zein aktoreak umorean hezitzea”. Umorearen heziketa landu nahi da, eta halaber, Europara edota Amerikara zubiak eraiki, “handik goi mailako irakasleak ekarriz, eta guzti hori inguru paregabean, Lekeition, lotuz”. Umorerako garai onak direla uste du Aitor Basaurik, “egun barre egiten ez badugu suizidio kolektiboa besterik ez zaigu geldituko. Garai okerrean beti izan dira komediarako onenak, Shakespeare edota Lope de Vegaren komediak jendea miseria gorrian bizi zen garaian argitaratu ziren”.

Ikastaroak ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz eskainiko dira, eta Austria, Frantzia edota Erresuma Batutik etorritako irakasleek emango dituzte eskolak, bertako profesionalekin batera. Orain arte, atzerrira joan behar izaten zen maila honetako ikastaroak egitera. Imanol Agirrek joera hori alderantzikatzeko ahalegina nabarmendu du: “Nazioarteko irakasle horiek bertara ekarri nahi izan ditugu, ez bertako ikasleentzat bakarrik, bai eta kanpotik etorri daitezkeenentzat ere, eta hori guztia Lekeition kokatu”. Bertako profesionalei begira, nazio-

Aitor Basauri
Spymonkey
taldearekin,
oholtzan.

arteko topaketa izatea nahiko lukete. Eskolaren aitzakian, kontaktuak egiteko parada izaten baita, eta hemengo eta hango profesionalak biltzekoa, bertan sortu daitezkeen produkzioak bultzatzekoa, giro ezin hobean”. Josu Bilbao erantsi digu, bestalde, munduari erakutsi nahi lioketela, hemen Euskal Herrian ere gauza ugari egiten dela.

“Gurea ez da artea, artisautza da”

Halaxe definitu du Aitor Basaurik haien lana: “Nik ez dut arterik egiten, jendea barre eginaraztea da nire gogoak, eta hori artisau lana da. Testuinguruak du horretan zeresana. Ber-lingen edo Lekeition sortzea, ezin esan gauza bera denik, inguruak eragina duelako.

Formazioa eta turismo aktiboa biltzen dituen proposamenak etorkizunari begira antzerki produkzioarako gune izatea nahi dute sorzaileek, “eskolak berak hainbat produktu-

AQUARIUM



Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com





ren sorleku izatea nahi genuke, proiektu horiek gogotik bultzatzea. Horregatik, garrantzitsua da Lekeitioko Kale Antzerki Jaialdiak bat egitea gurekin". Bilbaok dioenez, horrela, eskolan sor daitezkeen lanak non erakutsi ere izango delako.

Imanol Agirrek dio Jaialdiak beti izan duela formaziorako joera, baina orain arte ez dela gauzatu. "Jaialdiaren ondorio naturala da Stock Umorea, bere adarretako bat, jaialdia ez baita erakusketarako leku soilak. Antzerki eskola izatea beti izan da gure ametsetakoa bat, eta proiektu biek bat egiten dute helburuetan".

Lekeitio Off ekimenak bat egingo du Stock Umorearekin, ikastaroek irauten duten bitartean. Deialdia irekia dela argitu digu Bilbaok, antzerki munduan eta batez ere umoreari lotuta aritzen diren profesionalen zuzendutako dagoela, "haien lanak ere erakus ditzaten Lekeitioko kaleetan". Azken finean, ez luketelako nahiko antzerkia eta umorea eskolan geratzea, eskolak sortzen duen dinamika interaktiboa Lekeitioko herriarekin gerta dadin nahi luketelako.

Antzerkia eta turismoa

Stock Umoreak eskaintzen dituen ikastaroak maila guztietako profesionalen zuzendutako daude, baina arreta berezia ipiniko zaie zale-tuei eta antzerki munduan hasiberriak direnei, haientzat interesgarria izan litekeelako eskaintza. "Irakasle taldea, aldiz, ahalik eta profesionalena dugu eta udako eskola honetako edukiak aktuatziotik harago doaz". Zenbait arlo hartzen ditu Bilbaoren esanetan: "telebista, dantza, atrezzoak, gidoigintza, zuzendaritza... abaniko artistikoa izugarria da". Historikoki aktoreak izan du pisurik

Josu Bilbaok (Kiñuka) Lekeitioko eskaintako emanaldia, iaz.

handiena, "oso gauza berekoia izan da beti", jarraitu du Bilbaok, "Aktoreak idazten du, zuzentzen du, jokatzeko du... Baina kontuan hartu behar da horrek industria izan behar duela. Egia da ez gaitorlojuak produzitzen ari, baina produktuak egiten ari gara, eta produktu horiek konpetitiboak behar dute izan. Alegia, horren guztiaren atzean profesional talde batek egon behar du, eta bakoitzak bere tokia eta funtzioa bete behar du".

Petra Masseyk, Londreseko Spymonkey antzerki taldeko kideak zabalduko du udako eskolaren denboraldia, eta zehazkiago, klownaren gaineko bere eskolak. Indar handiko aktorea da, antolatzaileek nabarmendu dutenez, "badaki kontatzen eta taldea dinamizatzen, badaki une berezi hori aurkitzen, publikoaren barrea ateratzen, edozein pailazoren ametsa da". Patxo Telleria aktore eta gidoigileak, komedia eta gidoi ikastaroa eskainiko du, euskaraz. Luis Guridi madrildarrak aktoreen zuzendaritzaren gaineko ikastaroa emango du. "Umorearen ikus-entzunezko medioetan ikono bat dugu", dio Bilbaok. Oskar Terol aktorea, umoreaz eta telebistaz arituko da. Basetik, gorputzaren eta umorearen arteko loturak ezagutzeko, Ivan Fabregak dantza eszentrikoaren gaineko eskolak emango ditu. "Gauza berria da Ivanek egingo duena", aipatu zaigunez, "ikustean ezaguna zaigun arren, formazioaren alorrean erabat ezezaguna da egingo digun ekarpena". Genero musikala lantzeko, umorearen aldetik beti ere, Maitane Zalduegi izango da bertan, eta Anton Valenek aktorearen eta klownaren arteko erlazioa landuko du. Erresuma Batuko Lucy Bradrindge atrezzoan eta jantzi diseinuan murgilduko da erabat. Mozorroak egitea eta hori ahalik eta ondoen baliatzen irakastea izango da Bradrindgeren helburua. Azkenik, Austriatik helduko den Gerry Regitschnigek "Zure barruko memeloren bila" deitu ikastaroa prestatuko du.

Profesionalak umorean hezitzea nahi dute antolatzaileek, eta horren harira, heziketa berezi baten premia ikusten dela dio Bilbaok: "Mestizajea aberasgarria dela uste dugu, bost eguneko ikastaro trinko honetan bestearen begirada beharrezkoa da, profesionala izan ala ez izan. Inoiz frogatu ez dituzun gauzak egiteko, bai kameraren aurrean jartzeko orduan, baita dantza modu barregarrian egiteko orduan ere. Sudur gorria jarri eta inork barrerik ez egitea ere ikas daiteke". Aitor Basauriren ustez, "barrearen inguruko interesa besterik ez da behar Lekeitiora hurbiltzeko". ■



SDB


Joxan Lizarribar gogoan

SORTUKO DIRA BESTEAK 2013

MIKEL URDANGARIN PETTI
OLATZ PRAT ARANTXA IRAZUSTA
ALEX SARDUI MIXEL DUCAU
HARKAITZ CANO EÑAUT ELORRIETA

Ekainak 21. 20:30tan
Leidor Antzokia. Tolosa





Henduen literatura | POESIA

Olerki guztiak
Friedrich Hölderlin
Karmel, 2012

Beti-betian

FILOSOFIAKO tratatu bat bezain mardula, meza-liburuen letra doratuekin berde ilun ohikoaren gainean, Friedrich Hölderlinen (1770-1843) *Olerki guztiak* irekitzeko eduki behar da motibazio berezi bat, nik kausitu dudana bizkaiera arin elegante batean, edizio ezin erromantikoago batean eta, batez ere, Hiperion idatzi zuenaren irudimen, harmonia, sentipen atsegingarri xamur eta espiritu hilezkorrean. Hala definitzen du alemaniarraren poesia Luis Arostegi itzultzaileak berak, lan eskerga hau bere gain hartu duenak. “Ikusten doguna bere bizitzako eta olerkietako ilun eta argiaren jokoa da, atsegina be bai, sarriago dramatikua, frustrazioen eta itxaropenen katea, korapiloa”. Arrazoi du. Hölderlin giza izpirituaren borrokaren paradigma da. Antzinateari begirako abesti liluratuak utzi zizkigun, eta begiak zabaldu. Berari esker erreperatu genuen Europan edertasunaren argia, antzinakoen eran asmatuz berriro mundua.

Liburukia prestatzeko Michael Knaupp-en argitalpenean oinarritu da Arostegi. Bertan, olerkiak lehen zatian zetozen. Autorearen artikuluak, itzulpenak zein hartu-eman epistolarra bigarreanean. Kritika, azalpenak, poesiaren inguruko dokumentazioa eta biografia hirugarrenean. Horiak denak kontuan izanik eta sorkuntza kronologia errespetatuz opatzen zaizkigu lanak *Olerki guztiak* honetan. Liburu hau daukanak, beraz, Hölderlin dauka osorik, osorik eduki badaiteke behintzat lirikaren munstro zazpi buruko hau, poesiaren mugarri.

Klasikoa da Hölderlin, Grezia eta Erroma alemandu zituelako, ilustratua da Bonaparteren alde eta kontra agertu zelako Europa guztia lez, erromantikoa da maitasuna eta natura direlako bere eskuetan ederrak, eta nazionalista da zapaltzaileek erabili zituztelako bere aberriak zeru-herri patriarkalak egiteko: “Baina Jainkoak zaintzen gaitu, nire aberria/ gainberatu nai leukean bat agertzean”.

Bere garaian alboratu egin zuten Hölderlin. Zenbait kritikok dio hipokrita eta bekaiztien kontra zorroztu zuela berezko humanismo bat, etengabeko bilaketa bat harmoniarena eta orekarena, bisitatu ez zuen Grezia idealarekin nahasten zuena: “Loran da Jonia?, sasoia da?, izan be udabarriz beti,/ bizidunei biotza barritzen jakenean eta gizakiei/ leenengo maitasuna iratzarten eta urrezko aldien gomuta,/ nator zugana eta zure isilean agurtzen zaitut, antzinakoa!”. Mendebaldeko euskara aratzean emanak datozen era honetako konposizioen ederragatik bakarrik, merezi du liburuak. ■

Igor Estankona



Ramon Saizarbitoria Andoaingo Bastero kulturgunean, maiatzaren 29an.

Ramon Saizarbitoria: «Literaturak ez du laguntzarik behar, errespetua behar du»

EGUNERO HASTEN DELAKO eta *Martutene* liburuen artean gertatu diren aldaketak izan zituen hizpide 111 Akademiaren Saria –oraintsu arte Beterriko Liburua literatur apamena deiturikoa– jaso osteko hitzaldian, maiatzaren 29an. “Uste dut literaturak esfortzu bat eskatu behar lukeela. Gure garaian apalkeria eta hipokrisia dezente nabari zitekeen, baina orain naturaltasun gehiegi ikusten da. Zilegi da esatea, adibidez, ‘Joyce aspergarria zait eta utzi egin dut’, baina hori ez dago ondo. Lan batzuei, nahiz eta kostata izan, berriz ekin behar zaie”. *Martutene* eleberriak irakurleari eskatzen dion ahaleginaz jabetuta esan zituen hitzok, eta euskal literaturan oraindik ere ahalegin hori eska litekeela baieztatu zuen.

Saizarbitoriak pentsatu omen zuen *Martutene* lan errazagoa egitea, baina ezin izan zuen. “Hain zuzen ere, horregatik ez du meriturik edo ez dut saririk merezi, egiten dudalako, hainbat irakurlek igarri duen bezala, nire obsesioak eskatzen didana. Ez dut egiten konpromiso batengatik, ez dut lan egiten kultura edo euskara salbatzeagatik. Egiten dut neure burua argitzeko, neure egia aurkitzeko, neure obsesioak hori eskatzen didalako”.

Sari literarioen inguruan ere jardun zuen idazleak: “Literaturak ez du laguntzarik behar, errespetua behar du, eta askotan, sari literario batzuek, tartean ofizialek, ez dute idazlea errespetatzen ez dituztelako idazlearen garantiak errespetatzen epaimahaiak-eta osatzerakoan”.

111akademia.com helbidean, kronika osoa. ■



G.U.G.



Mandoilek
Mandoilek
Elkar, 2013

Festarako grina suspertzeko asmoz

HEZETASUNA gainetik kendu ezinik gabiltzan sasoi honetan, berotasun izpi bat emango didan esperantzarekin ekin diot Mandoilek taldearen lehenengo diska entzuteari. Aurreneko abestiarekin batera susmatzen hasia naiz dantzan arituko naizela hurrengo ordu erdian, eta berehala antzeman dut gorputzean itsatsitako lizuna askatzeko momentuko irtenbidea topatu dudala. Ez goaz gaizki.

Mandoilek taldeak proposatzen dizkigun doinuek eta hitzek indarra, festa, kolorea eta sentimendua aireratzen dute lau haizetara, eta mezu hori Euskal Herriko gazteen artean zabaltzen aritu dira zuzeneko emanaldietan. Musikaren alde argitsua erakusten saiatu dira, azken batean erritmo dantzarrietan oinarritzen baitira, reggae, cumbia, rumba eta horrelako doinuak joz.

Amurrioko taldeak euren kantuetan euskara eta gaztelania tartekatzen dute eta abesti berean bi hizkuntzak jorratzearen aukera hori Mandoilek taldearen ezaugarrietako bat dela esan genezake. Abesti berean erritmo aldaketak ere ematen dira hainbat kantuetan.

Oholtza gainean pare bat urte daraman taldeak. Beste proiektu musikaletan ibiliak diren Igon Olaguenaga trikitilaria eta Asier Linares perkusio-jotzailea erreperitorioa biribiltzen hasi ziren, eta geroago David Ferreño baxularia eta Andoni Vera gitarra-jotzailea sartu ziren, sortzen ari ziren kantutak sendotzeko asmoz. Arlo musikala finkaturik zutela, Unai Mendibil bertsolaria gonbidatu zuten kantuen hitzak sortzera eta melodiak kantatzera.

Oihuka diskoetxearen zigilupean kaleratu du Mandoilek taldeak izenburu bera daraman diskoa eta David Nanclares musikariaren ekoizpen artistikoaren laguntzaz grabatu dute.

Diskoak dituen 9 kantuetan zenbait gai jorratzen dira, hala nola, egungo egoera edota noizbait gertatutako egoera bat. Azken honen adibide dugu *Corazón* abestia. Euskal Herrian oihartzun handia izan zuen pasadizo bat ekartzen du gogora: emazteari ehizatzeria Soria aldera zihoala esan, eta etxean eskopeta ahaztuta Kubara joan zen senarraren gertaeran edo hiri-legendan oinarritzen da, hain zuzen.



Abestirik ederrenetakoa *Urrutitik kantu* dugu. Naroa Gaintzaren ahotsaren tinbre goxoak kolorea eman dio eta bere ahotsa gizonezkoenekin ondo uztartua dago. Kantuaren erritmo eranskorak eta zabaltzen den mezu baikorrak borobildu dute abestia.

Espuela amaierako kantuekin –bukaera emateko apropos utzia ote?– azkeneko tragoarekin beti liatzen den parrandazaleari omenalditxo egin diote.

Denbora-pasa moduan sortu zen taldeak lehenengo zuzeneko 2012ko maiatzean eman zuen eta Euskal Herrian eta Katalunia aldean emandako 40 bat kontzertuekin amaitu zuten urtea.

Uda honetan, plazak gainezka egoten zireneko garaiak joanak direla jakinda ere, festarako grina suspertzeko asmoz arituko dira zuzeneko emanaldietan, betiko erritmo dantzarrietan oinarritutako nahaste erakargarriari eutsiz.

Aurten, ekainaren 16an Amurrión ospatuko den Araba Euskaraz-eko kanta egiteko enkargua jaso du taldeak. Hala, beraien estiloari leialki jarraituz, *Mibian kili-kili, euskaraz ibili* sortu dute Igon Olaguenagak eta Unai Mendibilek. Abestia eta bideo klipa ikusgai ditugu www.arabaeuskaraz.net helbidean. ■



Olatz Korta

Hitz gezidunak

LEKAIME, SERORA PERTSONAIA- REN IZENA	BARRURA JOAN ARRAN- TZARAKO TRESNAK	HAZKURA ERAGITEN DUEN BASA- LANDARE	1500 ERROMATAR ZENBAKIZ GARAI, ALDI	ZORO, ERGEL UDAKO URTAROA	KOILARA HANDI ISTINGA	KANDELA PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA
		MUKIZAPI 501 ERROMATAR ZENBAKIZ				
HIZKETA, SOLAS MARTIN ARRANTZALE			ZEKEN, ZIKOITZ TONA			
				NEURI MERKURIOA		
LETRA IZENA	EUROPIOA TANTAKA				MODU ATZIZKIA ARABAZOZO	
		GEZIA		BELDUR BIZI ARGIBIDE		ZUHAITZ MOTA
BETEALDIA, OKADA ZAKUR						
	AZKEN LETRA AGORTU ADITZAREN INFINITIBOA			BARAZKI HOSTOTSUAK UKATU ADITZAREN INFINITIBOA		
TIK... ERLOJUAREN HOTSA PERTSONAIA- REN ABIZENA		TOKA, ZEN	SALBU KONTSO- NANTE ERRE- PIKATUA	URANIOA HITZ, MINTZO	EDO ANFIBIO MOTA	
		ESPERO IZAN GABE PLUTONIOA				
ARKUAK MARRAZTE- KO TRESNA OINORDEKO			ITSAS ARRAIN TXIKI LITROA			
				NAHASTURA TRINKOA		



Kike Amonarrizen umorea

Leihatila aurrean

Emakumea bankuko bulegora sartu da. Mostradorearen atzealdeko enplegatua telefonoz ari da eta bezero sartu berriari ez dio aurpegira begiratu ere egin.

Hamar minutu zain egon ondoren, emakumea langilearengana hurbildu da:

– Aizu! Badira hamar minutu mostradorearen aurrean nagoela!

Eta langileak, telefonoa une batez eskuarekin estaliz:

– Lasai! Nik hamabost urte daramatzat mostradorearen alde honetan!

Soluzioa

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Identitatea eta bestea

SELF ingelesezko hitzak hainbat esanahi ditu: norbera, ego-a, berbera... Eremu honetan murgildu da Matxalen Bilbao dantzari bizkaitarra bere azken lanean. Identitatea eta norberaren bilaketa ditu dantza bidez jorratutako gaiak. Bakartasunaren aldeko kantu koreografikoa egin du dantzariak, denok gara desberdin nahiz eta denok bat egin eremu edota pasai berean. Kaleak edo hiriak izan daitezke, edota, kasu honetan bezala, eszenan. Askotan, bestearen bidez ezagutzen dugu geure burua, agerikoagoak dira orduan norberaren galerak eta lorpenak, antsiak eta desirak. Horregatik, soloa planteatu beharrean duoa proposatu digu Matxalen Bilbaok, eta horretarako, Robert Jackson Bilbon kokatutako dantzari australiarraren laguntza izan du taula gainean. Egun, dantza garaikidean bogan dauden joerak beregatu ditu dantzariak: hipergel-dotasuna, contac deritzona, mugimenduaren desfragmentazioa edota zatiketa... Pieza erabat modernoa da koreografiari dagokionez, baita esanahiari dagokionez ere, “Nor naiz?” betiko kimerari erantzuna bilatu nahi baitio.

Aurreko asteburuan estreinaldia egin zuten La Fundicion aretoan. Bilbaorekin mintzatu gara *Self* obrak eta haxe da kontatu diguna:

Gehienetan bakarrik aritu zara. Oraingoan berriz, konpainian.

Ez pentsa, koreografo bezala aritu naizen azken 10 urteetan denetarik egin dut, hirukoak eta lauakoak... Baina, egia da, lan honetan eta egoera dagoen bezala, ezin diezula erantzun talde handiei. Gainera, nire lan moduak ordu asko eskatzen ditu, mugimenduaren hizkuntza ikertzen lan handia egiten baitut eta edozeinek ez du onartzen lan era hori. Bestetik, partekatze gogoare banuen, bai prozesua zein “boloak” eskainiz duzun esperientzia. Oso bakarrik sentitu naiz ni neure buruarekin lan eginaz. Gustutuko litzaidake lantalde handiekin lan egitea baina ni ez naiz gai, eko-

Self. Matxalen Bilbao.

Diziplina: Dantza Garaikidea. **Izenburua:** *Self*. **Idea, koreografia eta zuzendaritza:** Matxalen Bilbao. **Dantzariak:** Matxalen Bilbao, Robert Jackson. **Jatorrizko musika:** Borja Ramos. **Argiztapena:** David Alkorta. **Laguntzaile berezia:** Izaskun Santamaria.



Matxalen Bilbao eta Robert Jackson.

nomikoki, guzti hori aurrera ateratzeko. Azken lan honetan, argiztapenaz gain ez dago eszenan gauza handirik, ring baten antzera planteatu dugu. Teknikoki, zailtasun handiak aurkitu ditut lanak mugitzaile orduan eta, oraingoan zerbait gardena egitea nahi izan dut.

Nola sortu da zure azken lan hau?

Hiru urteko geldituenean ostan jaio da. Robertekin lanean hasi nintzenean, argi nuen pieza honek gure arteko harremanaz hitz egin behar zuela, gugandik kanpo dagoen zerbaiti buruz baino gehiago. Gure arteko desberdintasunak handiak dira: adina, esperientzia, lurraldea, generoa, hizkuntza, kultura... Baina bat egiten dugu mugimenduaren hizkuntzan. Edozein aitzakiari ondo deritzot mugimendua aztertzeko orduan eta horregatik ariketa zintzoa iruditzen zitzaidan Roberten esperientzia eta jakinduariaren kutsatzea. Bestetik, Iruditzen zait bai Robertek zein nik neuk ez dugula bat egiten egun dantzan dauden betiko topikoekin. Horrek ere desberdin egiten gaitu, eta erabat erre-

pestagarria dira desberdintasun horiek. Globalizazioaren ondorioz gero eta antz handiagoak dauzkagu gure artean eta horregatik pieza honek desberdinari egiten dio gorazarre. Desberdintasun horiek erakitzeke aitzakia bilakatu ditut.

Zein teknika erabili duzu lan honetan?

Oinarrian bat-batekotasun tailerretan erabiltzen diren teknika koreografikoak erabili ditut. Arlo teorikoa edota mahai lana handia izan da, lan literarioa nolabait, hitzez eta esanahiez bete behar duzu imaginarioa gero hori guztia mugimendu bilakatzeko. Lan handia egin dugu mugimenduaren zatiketan, gorputzaren desfragmentazioan, zerbait konplexua da. Bat-batekotasunean murgildu gara sortzerako orduan, baina horrek lan handia eskatzen du. Pieza zintzoa da, prozesuak berak eraman gaituelako heldu garen tokira. Hitza sartzeko ideia ere bazegoen baina azkenean erabaki dugu dantza izatea hizkuntza, azken finean biok dantzariak garelako. Dantzak zerikusi handia du mundu poetikoarekin. Baina mugimendu hutsa da.

10 urte daramatzazu dantzari, nola-koa da euskal dantza eszena?

Testuinguru zaila da. Badira hainbat dantzari lanean hemen. Baina La Fundicion bezalako areto pribatuek soilik ematen dute lana erakusteko aukera. Baina horren ostean zer? Euskal Herrian antzoki sare handia dugu baina programatzaile gehienak ez dute dantza garaikidea aintzako-tzat hartzen, gutxiengo batentzako dela pentsatuta. Baina publikoa ez bada hezitzen edo horretara ohitzen, ez dago zer egiterik. ■

Myriam Garzia



Hurbiltzen ari zaigun kometa, laster begien bistan

NASKIES-CC BY SA



VITALI NEVSKI eta Artyom Novichonok astronomoek antzeman zuten, joan den irailean, Lurrera hurbiltzen ari den ISON kometa. Orduraz geroztik, Hubble eta Gemini North espazioan teleskopioak ari dira kometaren ibilbidea behatzen, lehenbizikoa espaziotik eta bigarrena Hawaiitik. Eguzki sistemaren mugetan dagoen Oort laino-multzotik heldu da ISON gure ingurura; zientzialariek uste dute milaka kometa dagoela han.

Kometa bat Lurretik ikusita, 2011n.

Une honetan Marte eta Jupiterren artean dago kometa. Bost kilometro inguruko diametroa du, eta segundoko mila tona material baino gehiago askatzen du. Hurbildu ahala errazagoa izango da bere osaketaren berri izatea, eta hori oso garrantzitsua izan daiteke eguzki-sistema osatu zeneko materialen ezaugarriak ezagutzeko.

Guregana hurbildu ahala errazago ikusiko da kometaren arrastoa gau garbiko zeruan, eguzkiaren eraginez gero eta tenperatura handiagoa hartuko baitu haren gainazalak. Uste da 2.000 gradu zentigraduraino berotu daitekeela, eta behin tenperatura horretara iritsita edozer gauza gerta liteke, kometa desintegratzea barne. Hala ere, hori gertatu aurretik ISON geure begiz ikusteko aukera izango dugu, batez ere urri amaieran. ■



ttiki.com/51351
(Gaztelaniaz)

Imanak sortzen dituzten bakterioak

Bakterio asko gai dira burdin oxidozko iman nanometrikoak eraikitzeke. Gertaera horrek interes handia du biomedikuntzan, bai diagnostikoak egiteko, baita terapiak egiteko ere. EHUKo eta BC Materials ikerkuntza zentroko zientzialari talde batek bakterioek imanak sortzeko erabiltzen duten mekanismoa argitu du.

Deforestazioak energia hidroelektriko ekoizpena gutxitu dezake

Amazonia jasaten ari den deforestazioak bere horretan jarraituz gero, energia hidroelektriko kantitatea %30 jaitsiko da datozen urteetan. Aldiz, deforestazioa eten eta basoak zaintzen badira hazi egin daiteke energia elektrikoaren produkzioa. Hori xe ondorioztatzen da Brasilen egindako ikerketa batetik.

ttiki.com/51352
(Gaztelaniaz)

Hidrogenozko autorik ez Le Manseko 24 orduetan

AZKENEAN, GREEN GT enpresa suitzarrak ez du parte hartuko Le Manseko 24 orduetako lasterketa ospetsuan. Bere automobilak 56. lekutik atera behar zuen, baina ez dute lortu motorrari behar dituen prestazioak ematea. Haren berezitasuna da hidrogenoa duela erregai.

Hidrogenoa autoaren alboetan dauden bi andeletan metatzen da 350 barreko presioan, eta erregai pila elikatzen du, elektrizitatea sortuz. Orduko 300 kilometroko abiadura lor dezake, baina ezin du 24 ordu iraun.

Ikusten denez, falta da oraindik auto elektrikoak izateko. ■



GREEN GT



Bakterioak malariari aurre egiteko

Jakina da eltxo batzuek eritasun hilgarriak transmititzen dituztela. Berriki, Michiganeko Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde batek adierazi du malaria geldiarazi daitekeela eltxoetan hainbat bakterio txertatuz.

ttiki.com/51353
(Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Kiwia eta psikologia

KIWIAK ERE lorea du fruituaren ama. Eta aita. Dioikoa baita kiwia, espezie berean landare batzuk erabat arrak eta beste batzuk emeak dira. Biek zabaltzen dute lorea. Arrarenak polena zabaltu eta kitto lanak. Emearena ernalduko du polenak eta udazkenara arte fruitua hazi eta ontzen nahikoa lan izango du. Berriz ere lau aldiz handiagoa egingo da arra!

Aita eta ama bezala izeba-osaba ugari du kiwiak. Bere jatorrizko lurrian zaindu zuten txinatarrak. Zeelanda Berrira eraman zuen emakumea. Fruitu haien hazietatik sortutako landareak hautatuz hobekuntza burutu duten makina bat nekazari eta agronomo.

2010eko datuen arabera, Txina da munduko kiwi ekoizle nagusia, 467 milioi kilo, eta dena bertan baliatzen dute. Mundu mailako kiwi merkatua Zespri enpresa zeelandaberritarraren ukabil dago. Enpresa hori hango fruitugile gehienek artean sortua da, 2.700dik gora. Tasmaniako itsasoko estatua hirugarren ekoizlea da (370) baina urte osoan fruitua izateko Italian –munduko bigarren

ekoizlea, 442– kiwidi ugari du.

Txinatik eraman zuten uharte haietara eta handik zabaltu da. Han hegan egiten ez duen txoritxo bat bada, maorieraz kiwi izena duena; bertakoen ezizena ere horixe da. Txoritxoaren antza duen fruitua beraiek hedatu zuten, zein izen egokiagoa?

Actinidia deliciosa, kiwi berdeak izan zuen harrerak ekoizpena eta ikerketa sustatu zituen. Txinako Yang Taoa (*Actinidia chinensis*) oinarri, 1977an abiatutako gurutzatze eta hautaketa lan bat 1992an burutu zen: kiwi horia edo urrezko kiwia sortu zuten. Mamia horia du eta berdearen aldean gozo-gozoa da. 2000. urtean iritsi ziren lehenak Europara.

Kiwiak ia inongo gaitzak jotzen ez zituen sasitzat genituen. Baina monolaborantzak eta etekin gose asezinak ekarri die *nokiero*-ko botika. Berdeak ederki eusten dio, baina horia gorriak ikusten ari da.



LUC VIATOUR/WWW.LUCNIX.BE-CC BY SA

Pseudomonas syringae pv actinidiae edo PSA deituriko bakterioak lur jota ditu kiwigileak. Kiwidi gazteak erasotzen ditu. Hektarea bat kiwi jartzeko inbertsioa 30.000 euro ingurukoa da eta bosgarren urtean, oparo ematen hasi behar duenean, jo eta hiltzen du. Eta Italian eta Zeelanda Berrian nekazariak lur jota. Eta etsiak har ditzan aurretik, Zespri enpresak gaitzaren aurkako estrategia bihurria abiarazi du: nekazariak tratatzeko psikologo talde bat osatu du. ■



JAKOBA ERREKONDO



Helikoptero politak

Umetan astigarra (*Acer* sp) zer zen azkar asko ikasi genuen. Gereziendoaren gereziak bezainbat erakartzen zuen gure arreta astigarren fruituak. Besoa luzatu eta ahal zen goienetik askatuz gero helikoptero baten palak bezala biratuz mantso-mantso lurreratzen zen. Polita zen. Argazkiko astigar japoniarra, *Acer palmatum*, ari da fruituak hazten, polit askoak!

Beste helikoptero dotore batzuk ere bagenituen: sorgin-orratz edo mariburduntziak. Ur ondoko intsektu horiek, ordea, beste abaila batean ibiltzen dira. Intsektu azkarrenetakoak itxuraz, orduko ia ehun kilometroko abiadura harrapa omen dezakete! ■

Malinche, zauri ala aringarri?

COATZACOALCOS (MEXIKO), c. 1502. Noble familia batean jaio zen Malinalli Tenépatlm, gerora Malinche, Malintzin edo Doña Marina izenez ezagun egingo zen emakumea.

Aita hiltzean, ama berriro ezkondu zen eta seme bat izan zuen senar berriarekin. Malinalli lehensortua eta bidezko oinordekoa izan arren, gurasoek semearen alde egin omen zuten, zenbait iturriren arabera, eta neskatoa esklabo bezala saldu, neba txikiari bidea lautzeko. Beste bertsio batek dio maien eta mexiken arteko gatazka baten amaieran garaileari, hau da Tabscoobeko kazikeari, eman ziotela opari. Kontua da haurra besterik ez zela nobleziako kide izandako neskatoa esklabo bihurtu zela. Berehala, sorterriko nahuatl hizkuntzaz gain, maien hizkuntza ere menperatu zuen Malinche.

Espainiarrak Yucatan ingurura iritsi zirenean bertako maiek konfrontazioa saihestea erabaki zuten, eta 1919an Hernan Cortes buru zuten konkistatzaileei jakiak, arropak, urrea eta esklaboak eman zizkieten borondate ona adierazteko; ongietorri opariaren parte izan zen urte hartan bertan bataiatutako Malinche. Alonso Hernandez de Puertocarreroren zerbitzura egotea egokitu zitzaion hasieran.

Baina Cortesek golkoko kostaldetik mendebalderantz egin zuen aurrera, eta nahuatl hizkuntzaren eremuetara iritsi zen. Jeronimo de Aguilar itzultzaileak maien hizkuntza menperatzen zuen, baina hura ez zen nahikoa. Malinche Cortesen albora eraman zuten, konkistatutako lurralde berrietan interprete lanetan jardun zezan.



Malincheren ametsa (1939), Antonio Ruizen olio surrealista.

Gaztelania bizkor ikasi zuen, Cortesen konfiantza eskuratu zuen, eta, itzultzaile izatez gain, konkistatzailearen idazkaria eta, geroago, maitalea ere izan zen.

Harreman horretatik seme bat jaio arren, konkista amaitzean Hernan Cortes Juana de Zuñigarengana, Espainian utzitako emaztearen albora itzuli zen. Juan Jaramillo gaztelar kaparearekin ezkondu zen orduan Malinche. 1529ko dokumentu batek dio Jaramillok, alargundu ondoren, berriro ezkontzeko baime-na eskatu zuela. Horregatik

dakigu ordurako Malinche hila zela, baztangak jota ziurrenik.

“Espainia Berriaren konkista Jainkoari zor diogu lehenik, eta Doña Marinari bigarrenik”, idatzi zuen Hernan Cortesek gutun batean. Luzaroan Malinche espainiarren konkista erraztu zuen traidoretzat jo izan da, baina azkenaldian historialariak beste ikusmolde batzuk kontuan hartuta aztertzen ari dira pertsonaia. Herrikideek arbuiatu eta esklabotzara eraman zuten; aldiz, konkistatzaileekiko leialtasunak askatasuna eta maila soziala berreskuratzeko aukera eman zion. Gainera, konkistaren arrakastaren erantzukizuna ezin zaio hari egotzi; espainiarren urre gosea, nagusitasun militarra eta izurriak askoz erabakigarriagoak izan ziren Malincheren itzulpenak baino. Akaso konkistaren kalteak arintzen saiatzea egotzi dakioke, iturri garaikideen arabera, konkistatzaileen eta konkistatuen arteko negoziaketetan parte hartzen zuenean, alferrikako odol isuriak saihesten ahalegindu baitzen. ■



Arrastoak

Frankismoaren monumentuak berritzeko badago dirua



ERORITAKOEN HARANEKO ateladako eskulturak zaharberritzeko 286.485 euroko kontu saila onartu berri du Espainiako Gobernuak. Balio artistiko urriko eskulturak dira, eta esangura historiko handikoak. Milaka preso errepublikar behartu zituzten monumentu eskergan lan egitera. Horieta-

ko asko han hil ziren eta, senitartekoen gogoari muzin eginez, hantxe ehortzi zituzten. Hildako haien arrastoak egoera tamalgarrian daude orain. Zergatik ez erabili aurrekontu hori arrasto horiek duintzeko? Edo behar gorrian dagoen beste edozein eremutarako? ■

Multinazionalen joko zikina

Irurtzngo Inasako langileek euren lanpostuak mantentzeko esperantza dute, inbertitzaile batek interesa agertu baitu. Enpresaren jabeak oztopoak jarri ditu eta lantegia desegiten ari da. Makinaria bertatik ateratzea eragozteko mobilizatu dira langileak.

| URKO APAOLAZA AVILA |

ARGAZKI PRESS / JAGOBA MANTEROLA



Makinaria blokeatzea itxaropenetik sortutako ekintza izan da eta ez etsipenak bultzatutako inpultsoa.

MAIATZAREN 22AN, arratsaldean, Bridgnorth Aluminium enpresako ordezkari bat azaldu zen Irurtzunen, Interneten enkantean erositako hainbat makina ikuskatzeko asmoz. Ingelesak sorpresa batekin egin zuten topo: “Inasatik ez dira pasako!” eta “Enplegua defendatu!” leloak zeramatzaten papertxoak armatutako hamarnaka langileren

harresiarekin. Bi orduz eduki zituzten enpresa barruan entzerratuta, harik eta guardia zibilek eskolatuta atera zituzten arte. Ez zuten torloju bakar bat ere eraman.

Amaraun industrialak suntsitzen ari den multinazionalen “estrategia- ren” biktima berri bat baino ez da Inasa; baina ekintza haren ondorioz bere egoera ezagun egin da: “Eten-

gabeko guardian gaude, makinaria eramanez gero ez dago etorkizunik ez Irurtzunen ez Sakanan. Gogorra egiten ari zaigu, baina hori da dugun itxaropen bakarra. Azkenerraino borrokatuko dugu, herriaren gainetik pasa beharko dute” azaldu zion Info7 Irratiari Fernando Carrión enpresa batzordeko kideak pasa den greba orokor egunean.



URKO APAOLAZA



ARGAZKI PRESS / IDOIA ZABALETA

Irurtzungo herritarren inplikazioa handia da Inasako langileen borrokarekin. Ezkerrean, sukaldari ohia hamaiketako ematen; eskuinean, lantegi ondoko txabola muntatu zuten unea, bertan igarotzen dituzte gauak eta egunak.

Konkurto-so-iruzurra

“Hemen hasi nintzenean 1.000 lanpostu baino gehiago zeuden, eta orain ikusten duzu, egoera beltza da”. Pello Lazkoz arbizuarra 26 urte zeramatzan lantegian, duela urtebete 155 lagunekin kalean utzi zuten arte. 1956an jarri zuten marxan faktoria eta urte askoan Reynolds amerikar taldearen eskuetan egon da. Ehunka langile aritu dira hamarkadotan aluminioa egiten; 1986an Irurtzun Nafarroako herri industrialena omen zen.

2010ean, Bavaria Industriekapital (Baikap) arrisku-kapital enpresak erosi zuen lantegia. Holding alemaniar honen zeregina da galerak dituzten enpresak ahalik eta azkarren berrabiaraztea eta hori lortu ezean lehenbailehen desegitea. Horretarako, jakina, esku gogorrez kudeatzen ditu lantegiak. Inasan agudo nabaritu zuten “kudeaketa” modu hori.

2011n hasi ziren lehen kaleratze mehatxuak, aurre-jubilazioak eta soldata jaitsierak. Baina urte gogorrena 2012a izan zen. Zuzendaritzak Rajoyren lan erreforma aplikatzeko keinua egin zuen: soldatak %35 jaitsi –langile bakoitzak urtean 10.000 euro gutxiago– eta hainbat onura sozial (jangela, autobusak, formazioa...) kendu.

Greba mugagabea, sindikatuen arteko desadostasunak, aurreko akordioa, likidezia falta, berriz ere greba... 2012ko ekainaren 21ean

lantalde ia osoarentzako behin-betiko EEEda eta lantegiaren itxiera iragarri zuen zuzendaritzak eta greba mugagabea bota zion errua.

Enpresak talde komertziala mantendu du hilabete luzez eta gero hartzekodunen-konkurto-soa aurkeztu du: “Inasak 13 langileko biltegi batentzako konkurto-soa aurkeztu du, iruzurra eginez, 200 lagun lanean aritu izan diren fabrika dela ezkutatut baitu” salatu dute ohar bidez langileek.

“Berandu iritsi zarete”

Pixkana desegite prozesuari ekin dio Baikapek: lehenengo stocka beste lantegi batzuetara eramane zuten, gero makinaria salgai jarri... Bere orubean zegoen estazio meteorologikoa ere lekuz aldatu behar izan dute.


Ez du erraza izan behar bizitza erdia berton jardun duen langilearentzat, babak bertotik jan dituen herriarentzat, makinak sarean salgai ikustea. Sakanan, fresagailu bako-

tzak uzten duen hutsunea, pauso berri bat da inork ezagutzen ez duen toki morturantz.

Baina Inasa ez duela krisiak itxi, espekulazioak baizik, hori da langileen sentipena. Makinaria faktorian blokeatzea, itxaropenetik sortutako ekintza izan da eta ez etsipenak bulztatutako inpultsoa. Langileek hilabeteak daramatzate antolatzen: plataforma sortu zuten, enpresa auzibidean jarri eta alternatibak aztertu. Kooperatiba sortzea ez zela bideragarria eta etorkizuna inbertsore bat lortzearen esku zegoela ondorioztatu zuten.

Balitzko bazkide hori erakartzeko ahaleginetan bi hilabetez dohainik lan egiteko eskaintza egin zuten langile-ohiek –gutxienez 70 lagunek eman dute izena zerrenda horretan–. Hain justu, apirilean inbertsore talde batek lantegiarekiko interesa zuela jakin zen eta 115 lanpostu mantenduko lituzke.

Hortik aurrerako sekuentziak erakusten du Baikapen azken helburua enpresa likidatzea izan dela. Arrapaladan sinatu zuen makinariaren zati baten salmenta Bilbon, 3,1 milioi euroren truke. Eskualdeko *Guaixe* aldizkariak argitaratu duenez inbertsoreak bere asmoen berri eman zionean, “berandu iritsi zarete” erantzun zion talde administratzaileak. “Abokatuak aste-



Inasako langileen Twitter kontuaren bidez ere egin dute langile harresia osatzeko deia.



Ezkerrean, makinariaren erosleak Irurtzunera iritsi zirenean topatu zuten irudia, langileak besoak elkartuta eta kartelak eskuan; eskuinean, Inasa barruko makinetako bat, lote guztiak 5 milioi euro balio du eta Internetez ari dira saltzen.

buruan lanean izan ziren. Astelehenan despeditu zen salmentari alegazioak aurkezteko epea. Beraz, Inasa ixteko borondatea besterik ez zegoen salmenta ixteko presa horren atzean”, dio *Guaixek*.

Makinak lantegian, ateak irekita

“Gure helburu nagusia orain makinak ez ateratzea da. Nagusiak eragozpenak jarri ditu baina negoziatzen ari gara eta itxaropena dugu”, dio Gorka Oronoz gazteak. Lantegi ondoan paratutako txabolan euriaren tantan soinua etengabea da. Makinaria eramateko arriskua ikusi orduko jaso zuten kanpamendua eta hantxe pasatzen dituzte gauak eta egunak, patxaran botila eta elkartasuna lagun dituztela.

Badirudi makinak barruan mantenduz gero inbertsorearen eskain-

tzak aurrera egin dezakeela. Angel Cuevasek 46 urte ditu eta horietatik 27 daramatza Inasan: “Gobernuari eta erakundeei eskatzen diegun

“Eskatzen duguna denbora da, ez dugu laguntzarik ez subentziorik nahi, denbora bakarrik, inbertsoreak negoziatu dezan”

Angel Cuevas,
27 urte Inasan

gauza bakarra denbora da, ez dugu laguntzarik ez subentziorik nahi, denbora bakarrik, inbertsoreak negoziatu dezan”. Joan den astean

Nafarroako Legebiltzarreko bozeramaileen batzordeak UPNren gobernuari eskatu zion bitartekaritza lanak egin ditzala Inasako lanpostuak mantentzeko.

Irurtzundarrak jabetu dira zer dagoen jokoan, makinak direla herriari odola ponpatzen diotenak, eta inplikazioa handia da. “Herritarrek hasieratik jatekoa ekarri digute, gehiago ez ekartzeko esan behar izan diegu” dio Cuevasek, txabolaren aldamenean lantegiko sukaldari ohiak kafe beroa eta otartekoak banatzen dizkien bitartean. Lerro hauek idazterakoan langile harresiak zutik zirauen. ■

argia.com *Angelu Itsua*
blogean, maiatzaren 30eko greba orokorrean Inasako langileekin izandako hizketaldien bideoak.



ARABA EUSKARAZ 2013

Gora Araba euskalduna!!

Denok Amurriora!!

• JAN EDAN ENTZUN IKUSI ETA IKASI •

Donostia - alde zaharra

www.afuegonegro.com

Enbata, barne-barnetik


Daniel Landartek mugimenduaren barne historia kontatu du *Enbataren zirimolan* oroitzapen liburuan. Zuzen-zuzenean bizi izan zuen garai politiko bero errearen berri xehe eman du bertan, bere bizipenak harroin harturik.

| MIEL A. ELUSTONDO |

IPAR EUSKAL HERRIKO historia aldatu zuen mugimendua izan zela ere idatzi izan da. Hasmentan, zer izan zen, bada, *Enbata*? “Burges txiki liberal zenbait, laborari eta ofiziale bakarrek, irakasle batzuk, eta enplegatuak gehixeago (...) Oro-korki, Enbatako kidea eta horren aldekoa, orain ikastolen inguruan ikusten dugun jende horren irudikoa zen, nahiz urriagoa”. Jean Louis Davantek esanak dira, 1960ko hondarrean Enbata izena politikarako hartu zuten kideen berri emanez.

Enbata, sortzetik, *Embata* izan zen, Bordeleko unibertsitatean ikasle ziren euskaldun talde baten izena zen. Mugimendu politikoa baino lehen, berri, aldizkaria izan zen. 1960ko urrian argitaratu zuen lehenbiziko alea eta, ondotik, hasi zen taldea antolatzen. 1963ko Aberri Egunarekin, Itsasuko Agiria hedatu zuen, herriaren soberania eskubidea aldarrikatzen zuelarik. Davantek dio: “Daniel Landart Enbatara bildu zitzaigun 1965eko udaberrian. (...) Beti gogoan eduki dut oso mutiko gaztea zela, hamazortzi urtekoa. Bozkatzeko adinik ez zuen. (...) Danielek adinaz beste berezitasunik bazuen: Enbatako eskulangile bakarretarik genuen. (...) Mutiko argia zen ordutik, ideien borrokari zinez irekia, denetarik ikasteko tirria bizian, jadanik idazten hasia”.

Horixe Daniel Landart 60ko hamarkadaren hasieran, Donostiriko sortetxea utzirik, Baionako inprimaria baten lanean, hamalau urte zituela. Besteak beste, *Côte Basque Soir* kazeta egiten zen lantegi hartan



DANI BLANCO

“Igande goizetan, mezatiarrei *Enbata* kazetak saldu behar genizkien”.

eta, Daniel Landart mutikoak bazuen jakin-mina! “Ordu arte ez nuen egundaino kazetarik irakurri, baina parada neukanaz geroz, zergatik ez baliatu?”. Beste bi agerkari ere inprimatzen zituzten, ordea, *Gazte* kazeta eta emakume katoliko-ei zuzenduriko *Etebea*. “Inprimaria-ko ofizioan trebatuz nindoala, nik ere euskarazko bi agerkari haiek prestatzen parte hartzen nuen. Eta bistan dena, artoski irakurtzen nituela. *Côte Basque Soir* egunkariak,

gero eta maizago, aipatzen zituen ‘*les séparatistes basques, les nationalistes basques, les militants d’Enbata*’. Egia deblauki aitortzeko, ez nekien *séparatistes* eta *nationalistes* hitzek xuxen zer erran nahi zuten, eta hastapen hartan, iruditzen zitzaidan delako *Basques* haiekin ez nuela deus ikustekorik, haiek ‘beste mundu’ batekoak zirela”.

Mundu horren berri ez bazuen ere, euskalduna zen errotik Daniel Landart, eta *Herria* astekarian idazten zuen, Daniel Arberu ize-nordez. Garai hartan, Belokeko komentuan egun pasa, euskarazko liburuak irakurri nahi eta non kausitu ez zekie-la hango beneditar bati esanik, Baionako Euskal Idazkaritzara agindu zion delako fraideak. Eta Idazkaritza har-

“Hastapen hartan iruditzen zitzaidan delako *basques* haiekin ez nuela deus ikustekorik”

tara joanik ikusiko zituen lehenbiziko Jakes Abeberry, Eneko Irigarai eta Julen Madariaga.

Daniel Landartek laster egin zuen bat mundu ezezagun harekin, Idazkaritza hartan bertan Xabier Elozegi iheslaria adiskide eginik. Hark lagundu zion begiak irekitzen, euskal nortasunaz kontzientzia hartzen. “Abertzaleatasunaren mundu sutsuan sartzen ari nintzen (...) Jakes Abeberry ikusi nuen aldi batez, ene herabetasuna gaingiduz, deblauki galdatu nion zer egin behar nuen Enbata sartzeko. Hark berehala: ‘Hator bihar arratsean gure kazetaren plegatzera harpidedunei igortzeko’”.

Kazeta plegatzea izan zuen Landartek “lehen urrats garrantzitsua”. Handik goiti ezagutu zituen Enbatako militanteak, haietarik bat izan zen.

Liburuan ari dela, garai hartan Enbata gurutzatu zituen pertsonen izenak ematen ditu, sekulako galeria da mugimenduaren historia osatu nahiko lukeen ikerlariarentzat (ikus koadroa). Izenekin batera ageri dira egitateak, Christian Etchalus Iruñean preso altxatzea, lehenbiziko kartel ezartzea, artikulua idaztea, jendeek erakusten zien behako gaiztoa... Errealitatearen gordina bizi ukan zuten: “Igande goizetan, herri batera gindoazen eta eliza ateak, mezatarien *Enbata* kazetak saldu behar genizkien (...) Hasieran, jendeek erosten zizkiguten. Baina gero, ikusten gintuzteneko, presaka alde egiten zuten, eritasun kutsagarri bat ukan bagenu bezala, ausartenek noiz behinka botatzen zigutela: ‘Enbata zikinak!’, ‘Enbata zikinak!’”.



Enbataren zirimolan, Daniel Landart
Elkar, 2013, 260 orrialde.

Daniel Landartek Enbata barnetik kontatzen ditu guziak liburuan. Paretetan eta errepideetan tindaketak egiten zituzten, Ximun Haran eta beraren familiaren Hôtel des Basques-en iragan gaua, 1966ko Aberri Eguna eta han egin mintzaldiak, Telesforo Monzon, frantses legebiltzarreko hauteskundeetan esku hartu ez hartu betiko galdera eta betiko tirabira, Enbata baitako urrako eta haustura, iheslari politikoekin izandako harremanak, Meliton Manzanas hiltzea... “Abuztuaren 2a zen, asteazkena, Baionako pesten irekitze eguna. Nik, delako berri sinesgaitza Denek bat ostatuan jakin nuen. Bospasei iheslari bertan zeuden, zerbait arraro ospatzen balute bezala, pozez algaraka. Gonbidatu ninduten, eta haiekin batera, kopa bat edo bi edan nituen. Lehengo aldia zen ETak erabakitzen zuela pertsona bat garbitzea. Eta ez

Izen katalogoa

Jean Louis Davant, Jakes eta Koko Abeberry, Ximun Haran, Ramuntxo Camblong, Argitxu Noblia, Filipe Bidart, Mikel Hiribarren, Julen Madariaga, Eñaut Etxamendi, Xabier Elozegi, Eneko Irigarai, Marzel Etchehandy, Jean Hiriart Urruty, Patxi Noblia, André Galant, Yannick Aramendy, Michel Buruco, Anne-Marie Ithurralde, Michel Ithurbide, Paul Etchemendy, Peio Uhalde, Annie Dunat, Lucien Etchezarreta, Christian Etchalus, Piarres Xarriton, Eustakio Mendizabal, Txomin Iturbe, Martxalin Arbelbide, Pettan Elisalde, Jean Etcheverry-Ainchart, Arño Héguiphall, Christian Laxague, Dominique Davant... hainbat eta hainbat izen-deitura. Ipar Euskal Herrian ere bada aski historia, norik kontatu eta idatzi zain...

nornahi. Patxi Noblia gure laguna haren atzaparretarik pasatua zen!”.

Landartek 2013 honetaraino irauten duen kronika, oroitzapen bilduma zehatza egiten du, mende erdiaren historia bizia osatuz. Berrogeita hamar urtez Ipar Euskal Herriko lekuko izan da, aldaketa eta aitzinamenduak ikusia, Enbata mugimenduaren barneetik hainbat eta hainbat osagai eskaini dizkio historia osatu nahi duenari. ■



Txipiroiak plantxan

Bartolo

taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermín Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua

Best-sellerrak mailegatzzen ditugu, gaztelaniaz

Hernani, Markina-Xemein eta Ziordia, euskararen ezagutza eta erabilera maila ezberdina duten hiru herriako liburutegietara gerturatu gara, eta errealitate bera aurkitu dugu hiruretan: umeek euskarazko liburuak hartzen dituzte, eta liburutegietan gehien kontsumitzen dutenek aldiz, 50 urtetik gorakoek, gaztelaniazkoak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |



M.G.I.

Hernaniko liburuzainak (erdian Raquel Gonzalez), haurren txokoan. Hernaniko liburutegian iaz mailegaturiko liburuen artean, 5.894 izan ziren euskaraz (mailegatutako irakurgai guztien %24), 18.264 gaztelaniaz eta 345 beste hizkuntzatan.

ZIORDIA SAKANAN DAGO (Nafarroa); bailara honetan %32,6 gai da euskaraz ongi hitz egiteko eta euskaraz dakitenen hiru laurdenak euskara erabiltzen duela dio. Herriko liburutegia umez bete ohi da eta euskarazko irakurgaiak aukeratzeko dituzte, Naiara Perkaz Gastesi liburuzainak kontatu digunez: “Euskaraz irakurtzera jotzen dute haurrek eta bestela ere, liburutegi-

rako haienez erosten dudan guztia euskaraz da, beraz gaztelaniaz nahiko balute zaila izango lukete, baina B edo D ereduak ikasten dute eta gurasoek ere seme-alabak euskaraz irakurtzea nahi dute”. Helduen artean ordea, gaztelaniazko liburuak eskaera da nagusi, bereziki 50 urtetik gorakoek artean, eta horiek dira, hain juxtu, liburutegia gehien erabiltzen

dutenak, 50 urtetik gorako emakumezkoak, “eta hemen adin hori dutenek ez dakite euskaraz”.

Berdin gertatzen da Markina-Xemeinen (Bizkaia): euskara hautatzen dute txikienek, erdarara jotzen dute adinean aurrera egin ahala, eta 50 urtetik gorakoak dira kontsumitzaile izarrak. Dena den, Markina-Xemeingo biztanleen %88 euskaraz hitz egiteko gai iza-



Umez bete ohi da Ziordiako liburutegia (irudian). “Euskaraz irakurtzera jotzen dute hurrek eta bestela ere, liburutegirako haientzat erosten dudak guztia euskaraz da. B edo D eremuan ikasten dute eta gurasoek ere seme-alabak euskaraz irakurtzea nahi dute”, diosku Naiara Perkaz Gastesi liburuzainak.

Harry Potter eta itzulpenen garrantzia

Haurrak gehienbat ikastetxean eskatutakoaren bila doaz Hernaniko liburutegira, beti ere euskaraz. Gaztetxo-en artean hasten da hizkuntzaren hautua banatzen: literatura jakin bat ekoizten da haientzat eta sarri modek baldintzatzen dute irakurgaia, zer esanik ez liburu horien filma egin badute, ikusi bestela banpiroen istorioek orain duten arrakasta. Kontua da modako liburu horiek gehiago itzultzen direla gaztelaniara, euskarara baino. Horregatik, nahiz eta bestsellerrak euskaratzearen kontrako ahotsak egon, Gonzalez inportanteak iruditzen zaizkio itzulpenak: “Lortuko genuke horrekin euskaraz irakurtzea? Bestsellerrak behintzat bai, Harry Potter-en liburuak dira adibidea. Gainerako hizkuntzetara bezain azkar itzuli ziren euskarara, eta irakurri egin ziren, liburutegian dauden Harry Potter-en euskarazko liburuak asko erabili dira, sumatzen da esku ugartik pasa direla”.

nik –%57koa da euskararen kale erabilera–, gaztelania aukeratzen duen herritar asko euskalduna dela berretsi digu Igor Idoeta liburuzainak: “Adibide bat: irakurleen txoko bi ditugu, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa, bada, gaztelaniazkoan izena ematen dutenak euskaldunak dira. Euskarazko txokora idazleren bat ekartzen dugunean, gaztelaniazkoak ere animatzen dira solasaldira, agian zer edo zer irakurriko dute euskaraz, baina kosta egiten zaie, erdarara jo ohi dute”.

“Irakurketa-gidan, deigarria da gehienek gaztelaniazko liburuak aholkatzen dituztela, baina gomendioaren iruzkina euskaraz egiten dutela”, kontatu digu Raquel Gonzalezek

Hernanin (Gipuzkoa) ere, euskaldunek gaztelaniaz irakurtzeko joera dute, Raquel Gonzalez liburuzainaren arabera: “Liburutegira datozen gehientsuenek badakite euskaraz, guk beti euskaraz egiten dugulako lehenengo hitza eta euskaraz erantzun ohi digute. Baina euskaldun asko daukagu erdaraz

irakurtzen duena eta adibide garbia dugu: irakurleen gomendioekin osaturiko *Kuttunenak* irakurketa-gidan, deigarria da gehienek gaztelaniazko liburuak aholkatzen dituztela, baina horietako askok gomendioaren iruzkina euskaraz egiten duela”. Liburutegiak euskarazko irakurgaien gomendioak gaineratzen ditu gidan, orekatu aldera, “eta hala ere, proportzioa hirutik batekoa da gaztelaniaren alde”.

Hernanin %55,8 euskalduna da, %20,4 ia euskalduna eta kaleko erabilera %39,1ekoa da. Liburutegiko datu zehatzak ere baditu Gonzalezek: funtsa osatzen duten irakurgaietatik, “euskaraz kalera-tzen den gehiena hartzen dugun arren”, euskarazko lanak 11.846 dira, gaztelaniazkoak 33.619 eta beste hizkuntzatan 741. Iaz mailegaturiko liburuen artean, 5.894 izan ziren euskaraz (mailegatutako irakurgai guztien %24), 18.264 gaztelaniaz eta 345 beste hizkuntzatan. DVDen mailegatzean gauzak ez direla aldatzen azaldu digute liburuzainek eta horren erakusgarri dira Hernaniko datuak: iaz, liburuak ez diren maileguen artean 4.404 euskarazkoak ziren (%29), 10.035 gaztelaniaz eta 409 beste hizkuntzatan. Hutsune bat dute datuok: ez dute mailegatzailen adina kontuan hartzen, baina liburuzainak xehatu dizkigu haur, gazte eta helduen joerak.

Gazteen irakurgaia modek baldintzatzen dute sarri, zer esanik ez filma egin badute, eta modako liburu horiek gehiago itzultzen dira gaztelaniara, euskarara baino

Helduentzat ere balio du esandakoak, liburutegira gerturatzen diren gehienek salduenak irakurtzen dituztelako –erreserba zerrenda luzeak izaten dituzte liburuok– eta gehiena gaztelaniaz. Hernanin ere, 50 urtetik gorakoak dira erabiltzaile nagusiak, eta euskarara aiseago jotzen dute gazteagoak, 20-40 urte

artekoek, “ohituagoak baitaude euskaraz irakurtzera eta formakuntza ere euskaraz jaso dute”. Azkenik, euskara ikasleak ere hurbildu ohi dira, irakurgaien bila edota euskaraz antolatzen dituzten literatur solasaldietara. Hizkuntza Interesgu-nearen txokoa dute gainera, euskaraz ikasteko material dezenterekin (hiztegiak, gramatikak, metodoak, gidak...).

Zergatik?

Erdarazko irakurgaien eskaintza handiagoa izanagatik, euskaraz aniztasuna badela gogoratu du Igor Idoetak, eta garai batean euskarazko liburuak batez ere euskal literaturara mugatzen ziren arren gaur egun itzulpen ugari dagoela. Orduan, zergatik mailegatzten dute euskaldunek nagusiki erdaraz? Euskaraz irakurtzeko zailtasuna argudiatzen duenik bada, baina benetako arrazoa ohitura (falta) dela uste dute liburuzainek. “Euskaraz publikatzen dena erakargarria ez dela ere entzun izan dut, baina erdaraz irakurtzen duenak zabor pila bat irakurtzen du eta tarteka bitxikeriaren bat aurkituko du. Aitzakiak dira, ohitura bagenu euskaraz irakurriko genukeelako liburua, eta gero epaituko genuke txarra iruditu zaigun edo ez”, ondorioztatu du Gonzalezek.

Prentsa dute liburutegiotan eta aipaturiko ohiturak aldatzen lagundu dezakete egunkari eta aldizkariak. Idoetak dio gaztelaniaz irakurtzeko joera duen jendea euskaraz leitzera ohitu duela *Hitzza* egunkariak, etxean bertan ikusi baitu, amarekin. Gonzalez herriko egunkariak mintzatu zaigu: “*Hernaniko Kronika* aparteko fenomeno da, euskaraz ez dakitenek ere begiratzen dutelako eta batzuk goiz-goiz etortzen dira liburutegira *Hernaniko Kronika* hartzera baino ez”. Hala ere, *Diario de Noticias* eta *Berriaren* artean, lehenengo gailentzen da Ziordian, eta



IDOETAK UTZIA

Markina-Xemeingo liburutegian (argazkian), *El Correo* da egunkari irakurriena. Hala ere, Igor Idoeta liburuzainaren hitzetan gaztelaniaz irakurtzeko joera duen jendea euskaraz leitzera ohitu du *Hitzza* egunkariak.

El Correo (Markina-Xemeinen) eta *El Diario Vasco* (Hernanin) dira irakurrienak, nabarmen.

Joera orokor hau egin aurre egin nahian, erakustokietan euskarazko liburuei leku berezia egiten saiatzen dira sarri liburuzainak, euskarazko nobedadeak bistaratzen edota liburu proposamenen karteletan erdararekiko oreka bilatzen. Markina-Xemeinen, irakurketa gomendioak egiten dituzte inguruko herriei batera (Ermua, Iurreta, Durango, Ondarroa) eta gomendio gehienak euskaraz izan daitezten ahalegintzen dira. Hernanin, euskarazko liburuak baino proposatzen ez dituen gida-liburu bat kaleratzen dute, herriko euskara elkartearekin elkarlanean. Inprimakiak banatzen dituzte irakurleen artean eta horien gomendioak, euskarazkoak, *Hernaniko Kronika*an plazaratzen dituzte hilean behin, irakurlearen iruzkinarekin; “herriar gutxi animatu da oraingoz”.

Ipuin-kontaktak eta solasaldi literarioak izan ohi dira euskaraz aritzeko beste bi eremu, Markina-Xemeinen Peru Abarka album lehiaketa antolatzen dute, euskarazko literatura sustatzeko, eta euskaraz irakurtzeko zailtasunak argudiatzen dituztenentzat, irakurketa mailakatuaren gida atera du HABE Liburutegiak, euskal literaturako liburuen zailtasun maila adieraziz. “Oso baliagarria izango da literatura sailkatzeko eta asmoa da euskal narratibaren apalean liburuen zailtasun maila horren arabera markatzea, euskaraz trebatzen ari direnentzat lagungarri”, iragarri digu Gonzalezek. Aurrez aurreko aholkuak ere egiten dituzte liburuzainek, beti ere errazago herri txikietan eta ohiko bezeroekin sortzen den konfiantza giroan, baina azken finean, norberaren ohituren, gogoaren eta nahien esku dago hizkuntzaren hautua, liburutegira eleberri bila goazenean. ■



Babeslea: IVAP



HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



**Komunikazio
Elektronikoa**

IVAPen gomendioak web-orriak
idazteko



Kudeaketa-er
Kalitateari
2012

Bilbon eraildako emakumea prostituta eta afrikarra zela esan behar al da?

June Fernándezek gidatzen duen *Pikara Magazine* blogean sortu da eztabaida. Eraildako emakumea prostituta eta afrikarra zela esatea beharrezkoa da ala kazetaritza horiaren seinale da?

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

JUNE FERNÁNDEZEK *El Correo*ren eta *Naizen* adibideak aipatzen ditu artikuluan. Lehenengoak eraildako emakumea, prostituta eta afrikarra dela zehazten du, eta aldiz, *Naizek* datu horiek ez ditu idatzi, Fernándezek dioenez, “seguruenik ez zekizkielako baino, eraso azaltzeko datu baliagarri bakarra biktima emakumea zela esatea uste zuelako”.

Ondoko lerroetan Fernándezek idatzitako artikulua pasarte batzuk dituzue euskarara ekarriak:

“Atzo lagun batek esan zidan kezkatuta zegoela, emakumea afrikarra eta prostituta zela esateak eraso matxistaren zergatietatik aldentzen zuelako, eta kazetaritza horia bultzako lukeelako.

Maria Almansa Sánchezek hauxe esan du: ‘Nik uste dut ez dela gauza bera. Emakumea, beltza eta prostituta izateagatik jo zuten, hirurak dira argitaratu ekarri beharrekoak’. Kontua ez da krimen matxistei buruzko albistea ematea, baizik eta datuak eta hausnarketak eskura jartzea, jendeak uler dezan zergatik emakumeen aurkako biolentzia egiturazko arazo soziala den. Biolentzia azaltzeko elementu oinarritzak bote-harremanak dira.

Garrantzitsua da jakitea biktima emakumea, immigrantea, beltza eta prostituta dela, eta era berean, inportantea da jakitea erasotzailea gizona, bertakoa, zuria eta enpresaria dela. Edozein emakumek jasan dezake biolentzia matxista, baina jatorriaga-



Erailaren lagunak elkarretaratzean.

tik eta azal koloreagatik adibidez, babesgabeago da emakumea. Era berean ordea, gogoratu behar da ez dagoela perfil bakarreko erasotzaile-rik (aurreiritziek diote immigranteak, toxikomanoak eta eroak direla), baina maila sozial jakin batekoa izateak eragin dezake maila baxuagokoak gutxiestea, eta prozesu judizialean abantaila izango du.

Biktima prostituta eta afrikarra zela esateko beldurra badago uste dugulako ‘besteetakoak’ balitz bezala hartua izango delako, eta ondorioz,

“Jatorriagatik eta azal koloreagatik babesgabeago da emakumea”

enpatia, haserre eta mugimendu sozial gutxiago eragingo duelako, bada beste erronka bat daukagu. Lehen eta bigarren mailako emakume herritarrak dauzkagula salatuko duen kazetaritza egin beharko dugu”.

Berrian ere bai

June Fernándezek landutako ikuspegi antzekoari heldu zion *Berria* egunkariak ere Bilboko erailketa kontatzeko. Albistea emateaz gain, Maite Asensiok eta Iñaki Petxarro-manek hausnarketa interesgarriak jorratu zituzten. Lehenak “Babes gutxien duenari eraso” artikuluan (ttiki.com/51557) eta bigarrenak “Harria bota eta eskua gorde” izenekoan (ttiki.com/51558). ■



Mocconio Veroren errolda lanak: herri bakartua ez ginenaren froga bat gehiago

XAMARREK, Juan Carlos Etxegoienek (*Euskara Jendea* dokumentalaren egileetako bat), sarri azpimarraztu du euskararen bizi-raupenaz errepikatutako mitoetako bat: euskaldunak basatiak izan garela eta bakarluak bizi izan garela. Harreman urriaren ondorioz, euskara bizirik iritsi da XXI.



mendera. Mitoak oraindik indarrean dirau, nahiz eta euskararen herrian bisitari eta ez hain bisitari ugari izan denaren froga asko izan. *Euskara Jendea* izeneko dokumental sorta prestatzen ari direla, Ibaizabal-Mendebalde eta Zenbat Gara kultur elkarteetako kideek froga ederra aurkitu dute Frantziako Louvre museoaren biltegian. Mocconio Vero pretoi erromatarrari, hilarrian meritoak idatzi zizkiote-

nean, Euskal Herriko lurretan hainbat herritan egindako errolden egiletza aitortu zioten. Baskoien eta barduliarren 24 herri jaso zituen. K. o. I. mende bukaera eta II.aren hasierako kontuak dira horiek.

Erromatarrek mendetan izan zuten kontrolpean gaur egun Euskal Herria den lurra, baina hiztun komunitateak hizkuntza mantentzea lortu zuen.

Bahea

Estitxu Garaik Tolosaldeko Hitzan esanak:

“Han [Irlandan], publizitatean irlandar gaelikoa erabiltzen dutenean, helburu sinboliko batekin erabiltzen dute gehienbat. Beraz, ez dira hainbeste kezkatzen hizkuntzan izan dezakeen eraginaz edo jostagarritasunaz; iragarki bat gaelikoz egote hutsak, bertakotasuna ematen dio produktuari, eta zentzu horretan erabiltzen dute hizkuntza. Hango ikertzaileek ondorioztatzen dutena, beraz, zera da: horrek gaelikoaren egoera gutxietsia betikotzen duela. Gaelikoa sinbolikoki bakarrik erabiltzen bada, azkenean, museo hizkuntza bilakatuko da.

Komunikatzeko ahalmen hori etengo luke horrek, beraz. Bai, hizkuntza eragiteko delako, eta publizitatea, berriz, eraginkortasunaren eta pertsuasioaren mundua delako. Publizitatean hizkuntzak izan behar duen funtzioa eragitea da, eta ez egotea. Euskaraz, beraz, publizitatea egon badago, baina ez publizitate idazkeran eta publizitate eraginkortasunean”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Espainiako Bankuen kontratuak

MAIATZEAN Espainiako Estatuan izandako langabeziaren datuak ezagutu berri ditugu. Aurreko hilean baino 98.265 pertsona gutxiago zeuden langabezian; horietatik 1.630 Hego Euskal Herrikoak dira, batez ere Nafarroakoak, 1.259 lagun gutxiago baitaude langabezian. Gipuzkoan 394 langabetu gutxiago daude eta Araban 162. Aitzitik, Bizkaian langabeziak gora egin du berriz ere eta 190 pertsona gehiago geratu dira egoera horretan. Espainiako Gobernuak eta bere terminal mediatikoek “kimu berdeak” ikusi dituzte segituan eta optimismoz begiratzen omen diote etorkizunari. Errealitatea egoskorra da ordea. Bi gauza izan behar dira kontuan. Bat, maiatza enplegua sortzeko urtesasoia aproposa dela, turismo denboraldia eta nekazaritzako hainbat uzta-bilketa orduan hasten baitira. Bi, hain justu nekazaritzako eta ostalaritzako enplegua dela behin-behinekoena. Egiaz, 7,4 kontratu mugagabe baino ez dira sinatzen, behin-behineko 100 kontraturen aldean. Eta gainera, soldatak oso baxuak dira.

Kontratazioa handitzeko Espainiako Bankuak badu errezeta: gutxieneko soldatatik (645,30 euro) behera

dauden 400-500 euroko soldatatxoak, beti ere hitzarmenez kanpokoak. Erakunde horren presidenteak, Luis Lindek, hilero 13.000 eurotik gorako soldata jasotzen du, eta gomendio hori egiteko aurpegia izan du. Politikari gailendu nahi zaion kapitalismo basatienaren irudia da. Bankariak, soldata eta pentsio milioidunekin, euren politikak inposatzen ari dira, soldatetan, hipoteketan, kontratazioetan eta pentsioetan; eta batzuetan suizidioak eragiten dituzte. Galeren sozializazioa eta etekinen pribatizazioa inposatzen dute. Euren lehenengo betebeharra alboratu dute: enpresei eta familiei kreditua ematea krisia gainditu ahal izateko. Gobernuak errezeta hori bere egiten badu, langabeziak behera egingo du, milioika lagun daudelako langabezian eta langabetuek ere jan egin behar dutelako... Hori bai, giza duintasunaren eta lortzea hainbeste kostatzen izan den langileen eskubideen kontura. Gisa horretako bankariek kartzelan behar lukete. Lapurrak eta eraileak direlako.

Juan Mari Arregi



Bangladesheko arropa merkeak sarraskiz sarraski

2001ean orduan Europako merkataritzarako komisario zen Pascal Lamyk esan zuen: “Europar Batasunak lagunduko dio Bangladeshi munduko merkataritzan hobeki integratzen, aukera komertzial berriak irekiz”. Geroztik, ehunka hiltzen dira milioika jendeak esklabutzan lan egiten duen usinetako bat erre edo hondoratzen den aldi oro.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

JOAN BAEZEK 1972AN KANTATU zuen *Bangladesh* ahantzezin hura bera, gurean Begoña Bilbaoren hitzekin Lupek euskaraz zabaldu zuena, orduan bezain tragikoa ageri zaigu 40 urte beranduago. Orduan Pakistanetikiko independentzia aldarrikatzearen ondorioz sufritutako gudu ikaragarria zen kausa. Gaur mundu osoan gerrak baino jende gehiago akabatu eta miserian uzten dituen gudu ekonomiko orokorra.

Apirilaren 24an zortzi solairuko Rana Plaza eraikina hondoratu zen Bangladesheko hiriburu Dhakan (17 milioi biztanle). 1.127 langile, gehienak emakumeak, hil ziren betonak zanpatuta, 2.500ez goiti zauritu. Aste gutxi lehenago leku horietan ibilia zen Olivier Cyran kazetaria, *Le Monde Diplomatique*-rentzako ikertzen bost hilabete lehenago, 2012ko azaroaren 24an, gertatutako antzeko hondamendia. Cyranen “*Au Bangladesh, les meurtriers du prêt-à-porter*” (Bangladeshen, modako janzkien hiltzaileak) erreportajeak ondo azaltzen du zergatik gertatuko diren berriro horrelakoak.

Azaroaren 24an hondoratu ez, suak hartu zuen Dhakan Tazreen Fashions lantegia. Honen bederatzia solairuetan 3.000 emakume gazte ari ziren, gehienak baserritar txiroak, hilean 30 euro irabaziz, astean

sei egunez 10 ordu lanean arituta. Disney, Walmart eta Teddy Smith markentzako janzkiak egiten zituzten, nor bere josteko makina txikiari eraginez, hiru mila etxeakoandren lehiaketa mutua balitz bezala, hitz egitea debekaturik.

Errazena su hartzeko moduko merkantziak behe-barruan zeuden pilaturik, eskailera-zuloaren ondoran, ihesirako atak itxita, lapurretarik izan ez zedin. Bangladesheko usina erraldoiotan ohitura omen da. Sutea pizturik, garrak eta ke itogarria zabaltzen, aterabiderik ez... Gutxienez 117 emakume hil ziren, kiskali ez zirenak leihoetatik beren buruak botata leherturik.

Tazreen Fashioneke ugazaba Delwar Hossain ez dute atxilotu, auzitegiek ez diote ezertarako deitu. Bangladesh Garment Manufacturers and Exporters Association (BGMEA) patronalaren babesa dauka eta Bangladeshen BGMEAk agintzen du. Hatirjheel aintzira bazterrean dauka egoitza, Londresko Cityko edozein eraikinen inbidiarik gabea... ez balitz ilegal eraikia dela: herri-lurra ostuta altxatua delako, BGMEArek egoitza ponpoxoa eraisteko agindua du Dhakako Auzitegi Gorenak. Denek dakite sekula ez dela beteko.

Baina Mendebaldeko marka famatuentzako arropak ekoizten

Andrew Biraj argazkilariaren irudian, Tazreen Fashion fabrika azaroaren 24an kiskali eta gero. Besteren artean Disney multinazionalarentzako arropak ekoizten zituen kontrata hartan 112 obrero hil ziren, agintarien kontuetan, gehienak emakume gazteak, munduko metropoli handienetako batera ogi eske etorritako baserritarrak. AEBetan batzuk gogoratu dira ehun urte lehenago, 1911ko martxoaren 25ean, New Yorken Triangle Shirtwaist Companyk zeukan usinak su harturik 146 emakume hil zirela, judu eta italiar jatorriko etorkinak gehienak. Eguneko dolar bana kobratzen zuten New Yorken, 100 urte beranduago eguneko dolar bakarra jasotzen zuten Tazreenen. Diote 1911ko sarraski hark AEBetako langileak mugiarazi zituela, lan baldintzak hobetze aldera. Okerrago daude gauzak 2013ko Dhakan. Tazreenekoa jazo eta bost hilabetera gertatu da Rana Plaza-koa, 1.127 obrero hil. Ez azkenak.

dituen patronal esklabuzalea ez da beti egon hor. Kazetariari Jahangirnagar unibertsitatean ekonomia irakasten duen Anu Mohammedek kontatu dionez, 1980ko hamarkada arte nekazaritza zen herrialdearen oinarria.

Orduan iritsi ziren Munduko Diru Funtza eta Munduko Bankua eskuetan zekartzatela gastu publikoen murrizketa eta pribatizazio planak. “Horrela eragin zuten langabeziaren handitzea, inportazio masiboak eta lekuko industriaren suntsitzea. Orain alderdi politiko handietako burokratak, armadako ofizialak, poliziako buruak eta familia aberatsetako gazteak, denak sartuta daude patotxa honetan”.

Ez egin iseka txiroei

Bangladeshen dirua eduki eta janzkigintzako atelier bat ez antolatzeko zozoa izan behar duzu. Eskulana, kasik doan. Sindikaturik apenas baden Estatuaren atal gehienak pribatizatu zituztenetik. Makinen inportazioak ez du aduanan zergarik. Horri gehitu ustelkeria, edozein militar, politikari edo epaile erosi ahal izatea eta koktela prest.

Europa eta Amerikako agintari nagusiek sustatu dute estrategia. 2002tik 2012ra bitartean Bangladeshek janzkietan saltzen duena 4.800 milioi dolarretik 20.000 milioira igo



Paquet frantsesak bere 67 urteekin, erretiratzeko puntuan, lotsarik gabe kontatu dizkio xehetasunak golfean ari zen bitartean. “Hemen denetik egiten da, zaharrentzako pixoihalak barne. Arazoa da nire bezeroek gero eta gehiago lehertzen dituztela prezioak. Zer nahi dute, jendeak doan egitea lan? Europako markek produktua guk salduaren halako zapitan saltzen dute, edo hamarretan. Ase ezinak dira. Sekulako hipokresia dago. Pentsa, H&M [istri-puak jasandako lantokian egindako janzkiak saltzen zituenetako bat] markako buruzagiak patronalaren presidentearekin hemengo langileei baldintzak hobetzeko eskatzera bildu ziren egun berean H&Mko beste batzuk ari ziren hornitzaile guztiekin negoziatzen produktu guztien %15eko merketzea. ‘Mol-datu zaitezte, guri bost axola’, horra horien filosofia”.

da. Horiek gero AEBetako edo Europako hiperretan zenbateko dirutza utzi ote dute?

Bangladeshen elite lotsagabea aberastu du esportazioak, eskale gosetiz betetako karriketan 4x4z paseatzen dena. “Ez egin barre txi-rotasunak gaixotu dituen jendeei, ez egin iseka” irakurri du bulegoetan Olivier Cyranek. Parlamentuko 300 diputatuetatik 29 dira janzkigintza-ko tailerren jabe... hori ofizialki. Errealitatean askoz gehiago.

Kazetariak langileen liderrak ezkutuka elkarrizketatu ditu. Sindikatuak debekaturik daude *de facto*, militante agertzen bazara ugazaben liburu berdean jarri eta ez duzu gehiago enplegurik izanen. Gure tixertak edo kuleroak josten dituz-

tenen biziak ez du arropak berak baino gehiago balio. Tazreen Fashionen zauritutako batek kalteordaintzat jaso ditu 25 kilo arroz, 25 kilo baratxuri eta litro bat olio.

Ofizialki pittin bat garestiago da langilearen bizia: BGMEA patronalak azken aldian ezarria du zaurituak 1.000 euro balio dituela eta hilak 6.000... baldin eta gorpua erakusten baduzu. Tazreengo sutean zazpi faltatu ziren ofizialki. Baina Saydia Gulrukh antropologo militanteak salatua du askoz hildako gehiago geratu zirela kontatu gabe, gutxienez 68.

Europa eta AEBetako marka handien eta bertako ugazaben artean ari diren bitartekarien iritzia ere lortu du Cyranek. Georges


Tazreenen sutetik bizirik larriki zaurituta atera zen neska gazte batek esan dio kazetariari: “Horrelako gehiago gertatuko dira, baita okerragoak ere”. Bost hilabeteren buruan, Rana Plazan 1.127 hil.

Saydia Gulrukh antropologoak esan du: “Tazreenekoak ez du ezertan aldarazi ehungintzako langileen bizimodua, eliteei bost axola zaielako. Izugarrikeria gehiago gertatuko dira. BGMEA patronalak keinu kosmetikoak eginen ditu atzerriko bezeroei irudia bermatzeko, hauek erosleak lasaitu ditzaten. Baina ezer ez da aldatuko sistema osorik eraitsi, desegin eta oinarri filosofiko berrien gainean eraiki arte”. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Miterranden traizioa gogoan

ONDO DA, Euskal Herrian ez da preso politikorik. Ez Logroñon, ez beste inon. Biltzarraren erabakia da. Eta berdin ebatzi dezake *“mañana sol y buen tiempo”*, herritarrek eskertuko du, eta hala badio Biltzarrak, hala bedi. Ez da gatazkarik, ez da inoiz izan, gutxienez 1975etik aurrera, terrorista hiltzaile talde bat izan da eta kito. Gehi beren lagunak, gehi lagunak, gehi hauek ulertzen dituztenak, gehi lagunak izan gabe batzuetan ulertzen dituztenak eta, gainera, jakinda edo jakin barik, babes ideologikoa ematen dietenak. Erdiak espetxera. Bai, gatazkarik ez badago, bake prozesurik ere ez da behar. Segi espetxeak betetzen. Terroristek eta beren lagunak onartu behar dute hori besterik ez direla: terroristak eta beren lagunak. Onartu eta listo. Eta orduan bai, orduan demokrazia eta elkarbizitza loratuko dira.

Zenbat denboraz sostengatu daitezke gisa honetako kontakizuna eta errealtatea lapikoa nonbaitetik lehertu barik? Oraingoz iragan da urte eta erdi ETak armak behin-betiko utzi zituenetik. Eta esaten da poliki joan behar dela, halako egoera gaitzak ez baitira batetik bestera konpontzen. Eta egia da, denek ulertzen dute hala izango dela, ezinbestean; baina besterik ez bada zentimetroka aurreratuz, eta ez atzera eginez, hemen gertatzen ari den moduan. Txotxongiloak mugitzen dituenak urduritasuna eta noraeza barreiatu nahi baditu, lortzen ari dela esan liteke. Baina nondik lehertuko da presioa?

IPAR EUSKAL HERRIAN ere azken hilabeteetan presioa pilatuz joan da Lurralde Elkargoaren aldarrikapenarekin, gisa honetako



egitura baten inguruan inoizko kontsentsu handiena lortu arte gainera. Ekainaren 1eko Baionako mobilizazio handia izan zen horren adierazgarri. “Oraingoa bai” izan da aspaldikoz metatuen esperantza, besteak beste PS delako Eliseoko nagusi eta PSko euskal hautetsiak ere honen alde agertu direlako. Argien artean horiek, itzalen artean Manuel Valls ministroak behin eta berriz jaurtitakoak, Lurralde Elkargorik ez dela izango azpimarratuz.

Egia esan, mesfidantzak badu esparru zabala, ARGIAN bertan maiatzaren bukaeran Azkarateko alkate Jean-Michel Galanti egindako elkarrizketan, honek agertzen zituen bereak: “Ez dakit zer pentsa. Beren bizkar dago eskaera aitzinatzea. Baina ez badute deus erdiesten, erantzunak eman behar dizkiote herriari. Hau da, alderdi sozialistarekin ez dagoela ezer egiterik erran, eta, beharbada, alderdia utzi behar lukete. Edo joko batean ari dira soilik?”. Frédérique Espagnac senatari sozialistaren ekimenak laster emango zituen bere jokoa argibideak: ekainaren 1eko manifestazioan izan zen,


baina ordurako beste ekimen bat bideratua zuen Frantziako Senatuan honek Antolamendu eta Kooperazio Poloaren izeneko egitura onar zezan Ipar Euskal Herrirako. Inork gutxik zekien hortaz ekainaren 3ra arte, ezta Colette Capdevielle diputatu sozialistak ere. Frantziako Senatuak ekainaren 7an onartu zuen Espagnacen proposamena eta ondoren Asanblea Nazionalean onartu beharko da. Espagnacen kolpe honek gogora ekarri du, beste behin ere, François Mitterrandek 1981ean Frantziako lehendakaritza eskuratu zuenean, Euskal Departamenduaren aginduari egindako traizio ospetsua.


Lurralde Elkargoaren ideia bultzatzeko sortu den Koordinazioak, ordea, argi du Espagnacen polo horrek ez duela euskal instituziorik sortzen eta bere ekimena bultzatzen jarraituko duela iragarri du. Hastapeneko urratsetan aldarrikapena oso bateratua izan da, orain ikusiko da Espagnacen ekimenak zein printza sortzen duen batasun horretan. ■



ASTE HONETAKO

zozketa





A fuego negro jatetxea

2 lagunentzako afaria

Abuztuaren 31, 31
Donostia GIPUZKOA

www.afuegonegro.com

1




EUREKA! zientzia museoa

3 harpidunentzat bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

2



Iruñeko Planetarioa

3 harpidunentzat bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

3



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidunentzat bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2371. Argia)

SDB KONZERTUA Beasain

- Larrako aek Euskategia (Bilbo)
- Estitxu Kortejarena Ugarte (Tolosa)
- Jose Mari Ilardui Garitano (Bergara)

INGURU ABENTURA Eskalada I. maila

- Roberto Kerexeta Zulaika (Elgoibar)
- Jose Mari Ogando Rodriguez (Lekeitio)
- Juan Ignacio Elozegi Aldasoro (Berastegi)

SDB KONZERTUA Tolosa

- Idoia Jauregi-arraburu Abasolo (Arrasate)
- Xabier Zuzarregi Salaberria (Zizur Nagusia)
- Jose Jabier Iraeta Arsuaga (Zaldibia)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Joxemi Saizar Arostegi (Tolosa)
- Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)
- Igor Jimenez Honrado (Elorrio)

OKATU komikia

- Jon Goti Mendiola (Usansolo)
- Esteban Etxeberria Urreaga (Hernani)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30
Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com
www.argia.com/gunea

gunea

argia



BIRZIKLAGARRIA NAIZ.

Pentsaera, jarrerak, ohiturak... aldatzeko gai naiz. **Gipuzkoarrok 2016rako %60 birziklatzea lortu behar dugu.** Eta nik aldaketa horretan parte hartu nahi dut.

